




**EUSKO  
IKASKUNTZA**  
Asmoz ta Jakitez

# **GIPUZKOAKO UDALERRI TXIKIAK: DIAGNOSTIKOA ETA ESPERIENTZIEN KATALOGAZIOA**



## DATA

---

2019ko urria

## BABESLEA

---

Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Diputación Foral  
de Gipuzkoa



ORAIN  
GIPUZKOA

## JABETZA ETA ERABILERA ESKUBIDEAK

---

Aitortu 4.0 Nazioartekoa (CC BY 4.0)



## AURKIBIDEA

<b>1</b>	<b>HITZAURREA</b> .....	<b>4</b>
<b>2</b>	<b>MARKO KONTZEPTUALA</b> .....	<b>6</b>
<b>3</b>	<b>DIAGNOSTIKOA</b> .....	<b>9</b>
3.1	METABOLISMO DEMOGRAFIKOA.....	10
3.2	KOHESIO SOZIALA.....	12
3.3	SOZIOEKONOMIA .....	15
3.4	INGURUMENA ETA METABOLISMO SOZIALA.....	17
<b>4</b>	<b>ERANSKINA I: IRAUNKORTASUN ADIERAZLEAK</b> .....	<b>19</b>
4.1	METABOLISMO DEMOGRAFIKOA.....	20
4.1.1	Biztanleriaren bilakaera 2008-2018 .....	20
4.1.2	Zahartze tasa .....	21
4.1.3	Gain-zahartze tasa.....	22
4.1.4	Gazteen tasa.....	23
4.1.5	Zahartze indizea .....	24
4.1.6	Lan adina duen biztanleriaren feminizazioa.....	25
4.1.7	Estatutik kanpo jaiotako biztanleriaren tasa.....	26
4.2	KOHESIO SOZIALA.....	27
4.2.1	Behe-formakuntza tasa .....	27
4.2.2	Goi-formakuntza tasa.....	28
4.2.3	Errenta pertsonala.....	29
4.2.4	Errenta pertsonalaren genero desoreka .....	30
4.2.5	Familia errenta .....	31
4.2.6	Etxebizitza ez iraunkorren tasa .....	32
4.2.7	Udal hauteskunderen parte-hartze tasa.....	33
4.2.8	Haur hezkuntza zentroyen presentzia .....	34
4.2.9	Lehen hezkuntza zentroyen presentzia .....	35
4.2.10	Bigarren hezkuntza zentroyen presentzia .....	36
4.2.11	Ospitaleen irisgarritasuna .....	37
4.2.12	Osasun zentroyen irisgarritasuna .....	38
4.3	SOZIOEKONOMIA .....	39
4.3.1	BPG per capita .....	39
4.3.2	BPG per capita-ren bilakaera 2005-2016 .....	40
4.3.3	Establezimenduen bilakaera 2012-2018 .....	41
4.3.4	Lehen sektoreko establezimenduen tasa.....	42

4.3.5	Industriako establezimenduen tasa .....	43
4.3.6	Lehen sektorearen BEG .....	44
4.3.7	Industria sektorearen BEG .....	45
4.3.8	Enplegu nahikotasuna .....	46
4.3.9	Langabezia tasa .....	47
4.3.10	Langabezia tasaren genero diferentzia .....	48
4.3.11	Aktibitate tasa .....	49
4.3.12	Aktibitate tasaren genero diferentzia .....	50
4.4	INGURUMENA ETA METABOLISMO SOZIALA.....	51
4.4.1	Artifizializatutako lurren indizea .....	51
4.4.2	Elikadura sorkuntzarako lurren indizea.....	52
4.4.3	Ur kontsumo indizea .....	53
4.4.4	Energia kontsumo indizea .....	54
4.4.5	Instalatutako energia berriztagarrien indizea .....	55
4.4.6	Hondakinen sorrera indizea .....	56
4.4.7	Birziklatze tasa.....	57
<b>5</b>	<b>ESPERIENTZIEN BALORAZIOA.....</b>	<b>58</b>
<b>6</b>	<b>ERANSKINA II: ESPERIENTZIEN KATALOGAZIOA.....</b>	<b>61</b>
6.1	ORENDAIN: GUZTION ONERAKO EKONOMIA (GOE) .....	62
6.2	ALKIZA: INGURUMENARI LOTUTAKO HERRIA .....	63
6.3	ZERAIN PAISAIA KULTURALA .....	64
6.4	OREXAKO OSTATUA.....	65
6.5	APEZTEGIBERRIKO DENTA-TABERNA .....	66
6.6	AIAKO LUR ALKARTASUNA KOOPERATIBA .....	67
6.7	BAZTAN: ELIKADURA BURUJABETZA ESTRATEGIA .....	68
6.8	LIZARRAGA: ENERGIA MIKROSAREA .....	69
6.9	IZABA: ENERGIA KOMERTZIALIZATZAILE PUBLIKOA .....	70
6.10	LEGORRETA: ECHEZARRETA PAPER FABRIKAREN BIRGAITZEA .....	71
6.11	LANDALAB: ANGIOZAR, LEINTZ-GATZAGA ETA ZERAIN .....	72
6.12	ZEGAMA: ZEGAMA-AIZKORRI MENDI MARATOIA .....	73
6.13	ERREZILGO IBARBI SAGARRA ELKARTEA .....	74
6.14	BEIZAMAKO INGURUMEN ATERPETXEA .....	75
6.15	EZKIOKO IGARTUBEITI BASERRI MUSEOA .....	76
6.16	TXINDOKIKO ITZALA .....	77
6.17	EUROPAKO ESPERIENTZIAK.....	78

# 1 / HITZAURREA

Eusko Ikaskuntzak Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesarekin Herri Txiki Adimentsuak proiektua garatu du. Proiektu honen helburua, landa-eremuak bizi duen deskapitalizazioaren aurrean, herri txikien geroa bermatzeko errealitatea ezagutzea, aukerak identifikatzea eta horiek ezagutzera ematea da. Txosten hau “Gipuzkoako herri txikiak: diagnostikoa eta esperientzien katalogazioa”, proiektu horren osagarri da eta Gaindegiak, Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategiak, burutu du.

Lan honek bi atal nagusi ditu: herri txikien ezaugarritzea, batetik, eta herri txikietan trakzioa eragin duten esperientzien katalogazioa, bestetik. Lehenengo atalean, 30 adierazleren laguntzaz herri txikien argazkia osatu dugu. Horretarako, Gaindegiak udalerrri eta komunitateen iraunkortasuna aztertzeke erabiltzen den marko kontzeptuala baliatu da, Udalbizi egitasmoan biltzen dena.

Azpimarratu behar da diagnostikoa egiterako orduan Euskal Herriak bizi dituen problematika globaletatik Gipuzkoako herri txikietara egin dela bidea. Zentzu horretan, herri txikien kategorizazioa egiteko 2.500 biztanle baino gutxiago dituzten udalerrriak hartu dira aintzat. Halaber, udalerrriak landa-eremu bezala definitzeko Eurostatek erabiltzen duen DEGURBA sailkapen irizpidea erabili da.

Jakina da udalerrri askoren baitan herri txiki asko biltzen direla, baina datu estatistikoek ez dute azterketa hori modu xeheagoan egiteko desagregazio egokia eskaintzen. Nolanahi ere, udalerrri txikietan identifikatzen diren problematikak gainerako herri eta auzo txikietara estrapolatu daitezke.

Bigarren atalean, berriz, Euskal Herriko zein Europako herri txikietan burutu diren proiektu sozioekonomiko desberdinak katalogatu dira. Dinamika bakoitzak bere izaera eta berezitasun propioak baditu ere, funtsean, herri txikien iraunkortasunean duten eragin positiboak batzen ditu eta egungo jardueren agertoki zabala osatzen dute.

## **2 / MARKO KONTZEPTUALA**

Euskal Herriaren irudi nagusienetako bat dira herri txikiak eta bere inguruko landa-eremua. Irudikapen horrek badu bere zentzua; izan ere, 2.500 biztanletik beherako udalerririk komunitateen hiru laurden dira eta azaleraren bi heren bereganatzen dute. Gaur egungo dinamika globalen aurrean, ordea, Euskal Herriko herri txikietako biztanleriaren biziberritzea, eta ondorioz, komunitate horien iraupena, ez dago bermatuta: azken hamarkadan 280 herri txiki biztanleria galdu dute, eta horien erdiak 250 biztanle ere ez ditu.

Azken urteetako egitura ekonomikoak jasan duen desindustrializazioak eta tertziarizazioak hiriek ekonomian duten nagusitasuna indartu dute, aglomerazio ekonomiei bide emanez: hirigunean eta bere influentzia eremuan kontzentratzen dira baliabide pertsonal zein materialak. Horiek horrela, herritar asko (gazteak, bereziki) eremu metropolizatuetara mugitu da bizitzera, eta ondorioz, landa-eremua eta bertako herri txikiak husten eta zahartzen joan dira.

Herri txikien geroa bermatzeko, beraz, ezinbestekoa izango da komunitate iraunkorrak sortzea. Komunitate horiek bizilagunei bideratutako oinarritzko zerbitzuak, bitarteko materialak eta identitate kultural zein erlazionalak bermatu behar dituzte. Horiek erdietsi ezean zaila izango da biztanleriaren errotzea, eta herriak, denboraren denboraz despopulatzen jarraituko dute.

Horiek horrela, komunitate bakoitzak problematika eta erronka propioei egin beharko die aurre, baina herritarren bizitza-oinarriak bermatzeko iraunkortasunaren oinarritzko ardatzak aintzat hartu behar dira: belaunaldiartekotasuna, dibertsitatea, konplexutasuna eta erresilientzia. Beraz, komunitate batek bizi dituen aldaketak edota problematikak ezin ditugu modu isolatuan aztertu, prozesu eta problematika desberdinen ondorio baitira. Lan honetan zehar udalerrien diagnostikoa burutzeko adierazleak jarraian azaltzen diren lau multzo nagusietan banatu badira ere, horiek elkar lotuta daudela aintzat hartu behar da.

#### **Metabolismo demografikoa:**

Biztanleria bilakaera eta unean uneko egitura azterketak (adina, jatorria...) udalerriko metabolismo demografikoa nolakoa den esango du. Metabolismo demografiko orekatuak, adin zein jatorriaren arabera dibertsitatean oinarrituz, bere biztanleria biziberritzeko gaitasuna izan behar du.

#### **Kohesio soziala:**

Herritarrek duten formakuntza maila, errenta maila, etxebizitza eskuragarritasuna eta oinarritzko zerbitzuen irisgarritasunak zuzen-zuzenean eragiten dute kohesio sozialean. Tokian toki, kohesio sozialaren nolakotasunak komunitatearen barne loturak indartu ditzake, ala desberdintasunak areagotu.

#### **Sozioekonomia:**

Dinamismo ekonomikoa aztertuz (aberastasun sorrera nondik datorren, egitura ekonomikoaren egitura, establezimenduen bilakaera...) horiek lan merkatuan zein langabezian eragiten dituen desorekak ezagutu daitezke.

#### **Ingurumena eta metabolismo soziala:**

Lurraren erabilera maila, baliabideen kontsumoa eta horien ziklo itxiera komunitate batek aintzat hartu behar dituen ezaugarriak dira. Ondorioa, halaber, maila ugarian adierazten dira, eta oso kontuan hartuak izan ohi dira bertan bizitzen jartzeko, jarduera ekonomikoak abiatzeko eta abar.



Nolanahi ere, ez da komunitate iraunkorrik egongo herritarren artean komunitatea indartzeko nahikoa masa kritikorik ez baldin badago. Izan ere, iraunkortasuna ez da berezko praktika bat, kolektiboki eraiki eta berreraikitzen diren praktika multzo bat baizik. Herritarrei dagokie, beraz, lehen urratsa: beraien komunitateak etorkizunean nolakoa izan behar duen irudikatu eta horretarako lanean jartzea.


Azaldutakoa aintzat hartuta, esan behar da ezinbestekoa dela herri txikiei beharrezko baliabideak eskaintzea, izan ekonomikoak zein pertsonalak. Diru-laguntza iturri desberdinetatik haratago, instituzioek lurralde orekaren aldeko apustu estrategikoa egin behar dute ezinbestean. Hots, adostasun soziopolitiko zabalean oinarritua, denboran irauteko bezain sendoa, normatiboki eta aurrekontu aldetik hornitua eta abar. Izan ere, lan hau osatzeko egin den prozesuan herri txikietako biztanleekin izan den hartu-emanetik bi aldarrikapen azpimarratu behar dira: batetik, komunitate horien iraupenerako oinarrizko zerbitzuak (haur eskola, osasun zentroa...) bermatzeak duen garrantzia, eta bestetik, proiektuak aurrera ateratzeko baliabide pertsonalen gabezia.

Bide horretan, udalerrien saretzea eta proiektuen eskala aintzat hartu beharreko faktorea izango da. Oinarrizko zerbitzuak zein enplegu estrategiak, esaterako, eskualde mailan planifikatzea zerbitzuak deszentralizatzeko eta lurralde oreka lortzeko jorratu beharreko bidea izango da.

# **3 / DIAGNOSTIKOA**


### 3.1 METABOLISMO DEMOGRAFIKOA

Euskal Herriak biztanleria hazkunde etengabea izan du azken bi hamarkadetan, eta joera bera antzeman da bere landa-eremuko herrietan. Azken horien bilakaera, ordea, ez da homogenea izan eta hainbat eskualdek biztanleria galera handia jasan dute, Erronkari-Zaraitzu, Zangozeria, Estellerria, Arabako Ibarrek edota Arabako Mendialdea kasu. Bi patroik nagusi identifikatu daitezke aldaketa horretan: udalerriak zenbat eta txikiagoa izan biztanleria galtzeko orduan eta arrisku handiagoa dute, batetik, eta biztanleria galeraren kontzentrazio espaziala handia da, bestetik. Esan daiteke, gune metropolizatuetatik urrunen dauden herri txikiak direla arriskurik handiena dutenak. Izan ere, hiriguneetatik hurbil ez da herri txikiak geratzen ia.



**Irudia 1:** Euskal Herriko eta Gipuzkoako biztanleriaren bilakaera 1998 eta 2018 urteen bitartean.


Aintzat hartu behar da Euskal Herriko 518 udalerrik 2.500 biztanle baino gutxiago dutela (udalerrien hiru laurden), eta horietatik 190 udalerrik ez dutela 250 bizilagun baino gehiago. Gipuzkoak, zehazki, 48 udalerrik txiki ditu, eta horietatik 11 ez dira 250 biztanlera iristen. Halaber, ezin dira kanpo utzi hainbat udalerriren baitan kokatzen diren herri txiki eta auzoak. Horiek horrela, Euskal Herriaren errealitatea herri txikiei hertsiki lotuta dago, eta horien metabolismo demografikoa zaindu beharreko ezaugarria da.



**Irudia 2:** Euskal Herriko udalerrien tamaina biztanleriaren arabera.

Bide horretan, Gipuzkoa izan da biztanleriaren bilakaera egonkorrena izan duen herrialdea. Aipatu gabe doa bere lurraldearen trinkotasunak eta udalerrri txikiek hiriguneekiko duten gertutasunak herri txikietako biztanleria mantentzeko arrazoi indartsua direla. Nolanahi ere, biztanleria modu esanguratsuan galdu duten herri txikiak ere badaude Gipuzkoan, eta beraz, arreta berezia jarri beharko da horietan: Belauntza (%25,1), Beizama (%16,1), Leintz-Gatzaga (%11,8) edota Hernialde (%8,7) (ikus 4.1.1 puntua). Ezkutuan geratzen diren beste fenomeno batzuk ere badaude, hala nola formatutako gazteen galera ia sistematikoa eta gainbehera demografikoan murgildutako entitate txikiagoen (auzoak, kontzejuak, zendeak...) egoera.

Euskal Herriak metropolizazio eta tertziarizazio prozesu indartsuak bizi ditu. Biztanleria eta baliabide ekonomikoak hiriguneetan kontzentratzen ari dira, eta ondorioz, landa-eremua deskapitalizatzen ari da. Horrek, ezinbestean, lurraldearen egitura demografikoan eragiten du: biztanleria zahartu eta bere biziberritze gaitasuna mugatu egiten da. Ez da harrizkoa, beraz, Euskal Herriko zahartze tasa eta zahartze indize altuenak landa-eremuko herri txikiek izatea.



**Irudia 3:** Euskal Herriko udalerrien biztanleria bilakaera 2008 eta 2018 urteen bitartean.

Gipuzkoako herri txikien artean, aldiz, desberdintasun handiak topa daitezke. Batetik, zahartze tasa handia, zahartze indize handia eta gazteen tasa txikia duten udalerririk: Olaberria, Amezketza, Gaintza, Ezkio-Itsaso edota Gabiria. Bestetik, biztanleria gazteagoa eta hau biziberritzeko gaitasun handiagoa duten udalerririk, Orendain, Baliarrain, Altzaga, Aduna edota Aizarnazabal kasu (ikus 4.1.2, 4.1.3 eta 4.1.4 puntuak). Dena den, herri txikiek, oro har, Gipuzkoak batzaz beste duena baino adin egitura gazteago du, baina beste faktoreek, ordea, udalerririk horien biziraupena baldintzatzen dute (ikus 4.1.5 puntua).


Izan ere, Gipuzkoako herri txikiek hainbat ezaugarri komun dituzte: 15-29 urte bitarteko belaunaldiaren eskasia, lan adinean dagoen biztanleriaren maskulinizazioa eta biztanleria bereganatzeko ezintasuna. Landa-eremuko eta herri txikietako biztanle landunak inguruko industrian dihardu, eta sektore horren maskulinizazioak emakume landunak hirigunera migratzera bultzatzen ditu. Gipuzkoaren kasuan oso nabarmena da, udalerririk handiekiko alderatuta, herri txikietan lan adinean dagoen biztanleria duen maskulinizazioa (ikus 4.1.6 puntua). Modu berean, herri txikiek biztanleria gaztea ere errotzeko zailtasun handia dute. Gainera, estatutik kanpo jaiotako biztanleriaren tasa txikia da komunitate horietan, eta horrek biztanleria bereganatzeko duten gaitasun eza agerian uzten du (ikus 4.1.7 puntua).

Faktore horiek aintzat hartuta, herri txikiek biztanleria biziberritzeko duten gaitasuna kritikoa dela ikus daiteke, eta ondorioz, biztanleria galtzeko arriskua handia izango da hurrengo urteetan. Izan ere, gazteen belaunaldi galerak, emakumeak bereziki, eragin dezakeen jaiotza tasa apalak eta hurrengo urteetako biztanleriaren zahartzeak hazkunde begetatibo negatiboa eragingo dute (jaiotza baino heriotza gehiago). Beraz, herri txikiek kanpotik biztanleria bereganatu ezean hurrengo hamarkadetan biztanleria galduko dutela aurreikusi daiteke.

### 3.2 KOHESIO SOZIALA

Aipatutako prozesuek, desoreka demografikoak ez ezik, kohesio soziala higatzen duten desorekak eragiten ditu bere geografiaren luze-zabalean. Desberdintasun horiek bi ataletan sailka daitezke: biztanleriaren adin, formakuntza, jatorri edota errenta mailari lotutako


segregazioa, batetik, eta oinarrizko zerbitzuen eskaintzan eta eskuragarritasunean udalerrri zein eskualdeek duten diferentzia, bestetik.



**Irudia 4:** Euskal Herriko udalerrietako biztanleriaren goi-mailako formakuntza tasa.


Aurreko atalean biztanleriaren zahartzearen eta migrazioaren kontzentrazio espaziala aipatu dira, baina biztanleriaren formakuntza mailak eta errentaren banaketak ere patroi espazial argiak dituzte. Goi-mailako formakuntza duen biztanleria, esaterako, Euskal Herriko hiriguneetan eta bere inguruko eskualdeetan biltzen da bereziki: Donostialdea, Plentzia-Mungia, Euskal Kostaldea-Aturri, Aturri Errobi edota Iruñerria dira kasurik aipagarrienak. Landa-eremuan zein eskualde industrializatuetan, ordea, formakuntza maila altua duen biztanleriaren ehuneko txikia da. Datu hauek aglomerazio ekonomien ondorio dira. Gipuzkoan, bereziki, herri txikiek dituzte formakuntza mailari lotutako adierazle kritikoenak: Errezil, Amezketeta edota Leintz-Gatzaga adibide onak dira (ikus 4.2.1 eta 4.2.2 puntuak).

Bide berean, Euskadiko Autonomia Erkidegoko errenta pertsonala aztertuta, industriaren aktibitatea indartsua den eskualdeetan zein hainbat hiriguneetan errenta maila handia dela antzematen da. Aldiz, desindustrializazioaren eragina argia da Karrantzako, Ezkerraldeako edota Oarsoaldeako errenta maila baxuan, baita maila baxuko espezializazioa duten eskualdeetan ere: Arabar Errioxa edota Arabako Ibarrek, esaterako. Gipuzkoako herri txikien kasuan, berriz, udalerrien errenta maila industriaren gertutasunaren arabera da: industria herritik zenbat eta urrutiago errenta maila orduan eta txikiagoa da (ikus 4.2.3 puntua). Industria sektorearen maskulinizazioak, gainera, generoaren arabera errenta desoreka handiagoa eragiten du, eta efektu hori herri txikietan modu are nabarmenagoan antzematen da (ikus 4.2.4 puntua).



**Irudia 5:** EAeko udalerrietako bataz besteko errenta pertsonala.

Bestalde, herri txikien eta hiri handien edota landa-eremuaren eta hirigunearen artean desoreka argia eragiten duen faktorea zerbitzuen eskuragarritasun eza da. Ospitaleen irisgarritasun mailaren mapak oso ondo islatzen ditu lurralde desoreka horiek: hiriguneetatik zenbat eta gehiago aldentu, zerbitzuen eskuragarritasuna orduan eta eskasagoa.



**Irudia 6:** Euskal Herriko ospitaleen irisgarritasun maila.

Gipuzkoaren ezaugarri nagusienetako bat bere lurralde trinkotasuna bada ere, herri txiki askotan zerbitzuen eskaintza ez dago bermatuta. Leintz-Gatzak, Beizamak, Aramak, Orexak edota Belauntzak, adibidez, ez dute haur eskolarik, eta egoerak okerrera egiten du lehen eta




bigarren hezkuntzako zentroyen kasuan (ikus 4.2.8, 4.2.9 eta 4.2.10 puntuak). Halaber, osasun zentroyen presentzia ere kritikoa da Gipuzkoako herri txiki askotan; horren adibide dira Zegama, Orexa, Beizama edota Bidania-Goiatz (ikus 4.2.12 puntua).

Aurreko ataletan aipatu den bezala, oinarriko zerbitzuen presentzia ezinbestekoa da herri txikiyen geroa bermatzeko, horien ausentziak biztanleria bertan errotzeko zailtasuna areagotzen baitu. Baina aintzat hartu behar da sozialki kohesionatuta dagoen komunitate bat erdiesteko aipatutako lurralde desorekak gaintitu behar direla.

### 3.3 SOZIOEKONOMIA

Euskal Herriko ekonomia egiturak tertziarizazio prozesu indartsua jasan du azken urteetan. Esan gabe doa industria sektoreak Euskal Herriko ekonomian zuen garrantzia apalduz joan dela azken hamarkadetan, eta desindustrializazioari aurre egin dioten eskualdeak beraien aktibitatea egokitu behar izan dutela. Aldaketa horrek hiri zein hiriguneeek ekonomian duten garrantzia handitzea eragin du (gainerako eskualdeen eta herri txikiyen kaltetan), eta ondorioz, bertan biltzen dira baliabide material zein pertsonal gehienak. Aglomerazio ekonomiak sortu dira, alegia.

Horiek horrela, ez da harritzekoa hiriguneyen inguruan enplegu eskaintza gehiena kontzentratzea: Bilbo Handia, Donostialdea, Iruñerria eta Euskal Kostaldea-Aturri. Halaber, industria aktibitatea mantendu den eskualdeetan enplegu eskaintza kopurua ere handia da: Debabarrena, Debagoiena, Durangaldea edota Goierriko hainbat udalerritan. Biztanle asko, beraz, eremu horietara desplazatzen da egunero enplegua dela-eta.




**Irudia 7:** EAEko eta Gipuzkoako industriaren balio erantsi gordinaren bilakaera 1996 eta 2016 urteen bitartean.



Aipatutako joera oso esanguratsua da Gipuzkoako herri txiki askotan. Izan ere, industriak hainbat eskualdeetan duen presentzia oso garrantzitsua da (ikus 4.3.5 eta 4.3.7 puntuak), eta ondorioz, herritarrek bertan lan egiten dute. Industriak sortzen duen enplegua eta aberastasun banaketa jakitun ere, honek herri txikietan aktibitate endogenoa eta dibertsifikatua sortzeko eragiten duen muga azpimarratu behar da.

Nolanahi ere, industriaren presentziak herri txikien enplegu nahikotasunean eragin zuzena du. Izan ere, Olaberria, Aduna, Mendaro edota Ezkio-Itsaso bezalako herriek industria establezimenduak izanik, biztanleria aktiboa baino enplegu eskaintza handiagoa dute. Aldiz, Alkiza, Orendain, Gaztelu, Berrobi edota Baliarrainek ez dute bere biztanleria aktiboaren erdia ere herrian bertan enplegatzeko gaitasuna (ikus 4.3.8 puntua).

Izan ere, Gipuzkoako herri txikietan lehen sektoreko establezimenduen ehunekoa esanguratsua baldin bada ere, herriko ekonomiaren balio erantsi gordinean duen eragina oso apala da. Beizama, Orendain, Gaztelu edota Orexa bezalako herriak dira salbuespena (ikus 4.3.5 eta 4.3.7 puntuak). Esan gabe doa lehen sektorearen presentziarik gabe ez dela posible landa-eremuak eskaintzen duen ondarea (zerbitzu ekosistemikoak) zaintzea, hala nola, ura, lehengaiak, paisaia edota klimaren erregulazio. Zeregin horretan herri txikiak estrategikoak dira.



**Irudia 8:** Euskal Herriko udalerrien enplegu nahikotasuna.


Deskribatutako egitura ekonomikoak Euskal Herriko adierazle sozioekonomikoetan eragiten du: langabezia tasa handiena Enkarterrietan, Bilbo Handian (Ezkerraldean bereziki), Ebro Garaiko Erriberan eta Tuteraldean kontzentratzen da, Gipuzkoako udalerriek dute biztanleriaren aktibitate tasarik baxuena, eta langabezia tasaren zein aktibitate tasaren genero desoreka Euskal Herri osoan eragiten duen problematika da.

Gipuzkoako udalerrriak xeheago aztertuta, hiriguneetako zein bere aldirietako udalerriek dituzte langabezia tasa handienak, eta aldiz, herri txikiak dira langabezia tasa baxuena dutenak. Salbuespenak ere badaude, oso eremu industrialak diren herri txikietan, bereziki: Ikaztegietan,

Alegian, Berrobin eta Aizarnazabalen, esaterako, langabezia tasak %15 gainditzen du (ikus 4.3.9 puntua).

Gipuzkoako herri txikietako langabezia datuak, ordea, ez dira horren positiboak genero ikuspegia tarteko. Izan ere, herri txikiak dira emakumeen eta gizonen arteko langabezia tasan diferentzia nabarmenena duten udalerriak: Gaztelun, Aizarnazabalen eta Amezketan emakumeen langabezia tasa gizonena baino hamar puntu altuagoa da (ikus 4.3.10 puntua).

Aktibitate tasan, aldiz, ez da herri txikien eta ertain-handien artean diferentzia nabarmenik antzematen: Gipuzkoako herri txikietako aktibitate tasa lurraldearen antzekoa da, batez bestekotik gora zein behera (ikus 4.3.11 puntua). Adierazlearen genero desorekari dagokionez, ordea, herrialde osoan emakumeen aktibitate tasa gizonena baino baxuagoa bada, daturik kritikoenak herri txikienak dira: Beizama, Leaburu, Baliarrain, Ikaztegieta, Altzaga... (ikus 4.3.12 puntua).



**Irudia 9:** Euskal Herriko udalerrien langabezia tasa.


Laburbilduz, Euskal Herriaren egitura ekonomikoak desoreka sozioekonomiko argiak eragiten ditu: enpleguaren eta langabeziaren kontzentrazioa, batetik, eta gizon eta emakumeen arteko diferentzia, bestetik. Errealitate horren aurrean herri txikiak lurraldeko gainerako dinamiken menpekoak dira, eta beraz, desoreka horiek erreproduzitzen eta areagotzen dituzte, eta ondorioz, biztanleria errotzeko gaitasuna galtzen dute. Deskribatu den egoera hau ez da udalerrien berezko ezaugarrien ondorio, indarrean dagoen antolamenduarena baizik. Beraz, pentsa daiteke planifikazio eta interakzio egokiak egoera norabide baikorrean jartzeko aukera eskaintzen duela.

### 3.4 INGURUMENA ETA METABOLISMO SOZIALA

Ondare naturala landa-eremuarekin eta herri txikiekin lotzen den imaginarioa da. Kontraesankorra badirudi ere, biztanleria dentsitate baxuaren ondorioz herri txikiak dira pertsonako lur artifizializatu handiena duten eremuak. Gipuzkoako herri txiki askoren kasuistika,

gainera, oso berezia da oso eremu urbano eta industrialetan kokatzen baitira. Horren adibide dira Belauntza, Olaberria, Aduna edota Ezkio-Itsaso (ikus 4.4.1 puntua). Aldaketa klimatikoaren eragina gero eta nabarmenagoa den garai hauetan ingurumenaren zerbitzu ekosistemikoak babestu beharko dira, eta lurraren artifizializazioa mugatzea neurrietako bat izango da, baina horrekin batera, tokian toki egokienak izan daitezkeen jardura ekonomikoak nola sustatu aztertu beharko da.

Bide horretan, lehen sektorea eta elikagaien produkzioa estrategikoak izango dira ondare naturala mantendu eta babesteko, eta herri txikiak ardura berezia izango dute zeregin horretan. Izan ere, Hego Euskal Herriko datuei erreparatuz gero, Nafarroako eta Arabako landa-eremu osoan eta Tolosaldea, Goierri, Gernika-Bermeo zein Lea-Artibaiko eskualdeek dute gaur egun biztanleko elikagaiak sortzeko gaitasun handiena. Gipuzkoaren kasuan, zehazki, 2.500 biztanletik berako herri txikiak dira elikagaiak sorteko ahalmena dutenak (ikus 4.4.2 puntua). Elikadura burujabetzara bidean, landa-eremuko herri txiek asko dute eskaintzeko, eta hori lurralde orekarako faktore determinantea gerta daiteke kasu askotan.



**Irudia 10:** Euskal Herriko udalerrien elikadura sorkuntzarako lurren indizea.


Nolanahi ere, gaur egungo garapen eredu sozioekonomikoak baliabide naturalen erabilera asko baldintzatzen du, eta ezinbestekoa izango da baliabideen murrizketarako eta materialen ziklo itxierak erdiesteko neurriak hartzea. Zentzu horretan, herri txikiak ezaugarri positiboak zein negatiboak dituzte. Alde batetik, herri txikiak dira, biztanleria urriak edota industriaren presentziak baldintzatuta, biztanleko elektrizitate kontsumo handiena duten udalerriak (ur kontsumoan diferentzia ez da esanguratsua) (ikus 4.4.3 eta 4.4.4 puntuak). Bestalde, herri txikiak dira, bereziki, gaur egun energia berriztagarria sortzeko gaitasun handiena duten udalerriak: Gaztelu, Elduain, Ikaztegieta edota Berastegi batzuk aipatze aldera (ikus 4.4.5 puntua). Herri txikiak dira, beraz, energetikoki burujabeak diren komunitateak lortzeari begira bidea gehien aurreratu dutenak.

# **4 / ERANSKINA I:**

## **IRAUNKORTASUN ADIERAZLEAK**

## 4.1 METABOLISMO DEMOGRAFIKOA

### 4.1.1 Biztanleriaren bilakaera 2008-2018




#### Fitxa teknikoa:

Iturria: INE eta Euskalgeo.


Erreferentzia urtea: 2008-2018.

Azalpena: 2008-2018 urte bitarteko biztanleria bilakaera.

#### Biztanleriaren bilakaera 2008-2018 (%)



#### 4.1.2 Zahartze tasa




#### Fitxa teknikoa:


Iturria: INE eta Euskalgeo.

Erreferentzia urtea: 2018.

Azalpena: 65 urtetik gorako biztanleriaren ehunekoa biztanleria osoarekiko.



### 4.1.3 Gain-zahartze tasa




#### Fitxa teknikoa:


Iturria: INE eta Euskalgeo.

Erreferentzia urtea: 2018.

Azalpena: 80 urtetik gorako biztanleriaren ehuneko biztanleria osoarekiko.




## 4.1.4 Gazteen tasa

**Fitxa teknikoa:**

Iturria: INE eta Euskalgeo.


Erreferentzia urtea: 2018.

Azalpena: 15 urtetik beherako biztanleriaren ehunekoa biztanleria osoarekiko.





#### 4.1.5 Zahartze indizea




#### Fitxa teknikoa:


Iturria: INE eta Euskalgeo.

Erreferentzia urtea: 2018.

Azalpena: 65 urtetik gorako biztanleriaren ehunekoak 15 urtetik beherako biztanleriarekiko.



#### 4.1.6 Lan adina duen biztanleriaren feminizazioa




##### Fitxa teknikoa:

Iturria: INE eta Euskalgeo.


Erreferentzia urtea: 2018.

Azalpena: 16-64 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoa 16-64 urte bitarteko biztanleria osoarekiko.

#### Lan adina duen biztanleriaren feminizazioa (%)



#### 4.1.7 Estatutik kanpo jaiotako biztanleriaren tasa




#### Fitxa teknikoa:

Iturria: INE eta Euskalgeo.

Erreferentzia urtea: 2018.


Azalpena: Estatutik kanpo jaiotako biztanleriaren ehunekoa biztanleria osoarekiko.

#### Estatutik kanpo jaiotako biztanleriaren tasa (%)



## 4.2 KOHESIO SOZIALA

### 4.2.1 Behe-formakuntza tasa




#### Fitxa teknikoa:


Iturria: EUSTAT eta Euskalgeo.

Erreferentzia urtea: 2016.

Azalpena: Behe-formakuntza duen biztanleriaren ehunekoa biztanleria ez osoarekiko (10 urtetik gorako biztanleria ez ikaslea bakarrik aintzat hartzen da).



#### 4.2.2 Goi-formakuntza tasa




##### Fitxa teknikoa:


Iturria: EUSTAT eta Euskalgeo.

Erreferentzia urtea: 2016.

Azalpena: Goi-formakuntza duen biztanleriaren ehunekoa biztanleria ez osoarekiko (10 urtetik gorako biztanleria ez ikaslea bakarrik aintzat hartzen da).



### 4.2.3 Errenta pertsonala




#### Fitxa teknikoa:


Iturria: EUSTAT eta Euskalgeo.

Erreferentzia urtea: 2016.

Azalpena: 18 urtetik gorako biztanleriaren batez besteko errenta osoa.



#### 4.2.4 Errenta pertsonalaren genero desoreka




##### Fitxa teknikoa:

Iturria: EUSTAT eta Euskalgeo.


Erreferentzia urtea: 2016.

Azalpena: 18 urtetik gorako emakumeen batez besteko errenta osoaren ehunekoa gizonen batez besteko errentarekiko.

#### Errenta pertsonalaren genero desoreka (%)



#### 4.2.5 Familia errenta




##### Fitxa teknikoa:

Iturria: EUSTAT eta Euskalgeo.


Erreferentzia urtea: 2016.

Azalpena: Familien bata besteko errenta osoa.





#### 4.2.6 Etxebizitza ez iraunkorren tasa




#### Fitxa teknikoa:

Iturria: EUSTAT eta Euskalgeo.


Erreferentzia urtea: 2016.

Azalpena: Erabilera iraunkorra ez duten etxebizitzaren ehunekoak etxebizitza parke osoarekiko.

**Etxebizitza ez iraunkorren tasa (%)**



#### 4.2.7 Udal hauteskundearen parte-hartze tasa




##### Fitxa teknikoa:

Iturria: Eusko Jaurlaritza eta Euskalgeo.

Erreferentzia urtea: 2019.


Azalpena: Udal hauteskundeetan bozka eman duten pertsonen ehunekoak.

#### Udal hauteskundearen partehartze tasa (%)



#### 4.2.8 Haur hezkuntza zentroyen presentzia

---



---

##### Fitxa teknikoa:


Iturria: Eusko Jaurlaritza eta Euskalgeo.

Erreferentzia urtea: 2019.

Azalpena: Haur hezkuntza zentroyen presentzia udalerrian.

#### 4.2.9 Lehen hezkuntza zentroyen presentzia

---



---

**Fitxa teknikoa:**


Iturria: Eusko Jaurlaritza eta Euskalgeo.

Erreferentzia urtea: 2019.

Azalpena: Lehen hezkuntza zentroyen presentzia udalerrian.

#### 4.2.10 Bigarren hezkuntza zentroyen presentzia

---



---


#### Fitxa teknikoa:

Iturria: Eusko Jaurlaritz eta Euskalgeo.

Erreferentzia urtea: 2019.

Azalpena: Haur hezkuntza zentroyen presentzia udalerrian.

#### 4.2.11 Ospitaleen irisgarritasuna




#### Fitxa teknikoa:


Iturria: EUSTAT eta Euskalgeo.

Erreferentzia urtea: 2016.

Azalpena: Udalerritik gertueneko ospitalera dagoen distantzia.




## 4.2.12 Osasun zentroyen irisgarritasuna

**Fitxa teknikoa:**

Iturria: EUSTAT eta Euskalgeo.



Erreferentzia urtea: 2016.

Azalpena: Udalerritik gertueneko osasun zentrora dagoen distantzia.



## 4.3 SOZIOEKONOMIA

### 4.3.1 BPG per capita



#### Fitxa teknikoa:


Iturria: EUSTAT eta Euskalgeo.

Erreferentzia urtea: 2016.

Azalpena: Biztanleko barne produktu gordina.



### 4.3.2 BPG per capita-ren bilakaera 2005-2016




**Fitxa teknikoa:**

Iturria: EUSTAT eta Euskalgeo.


Erreferentzia urtea: 2005 eta 2016.

Azalpena: Biztanleko barne produktu gordinaren bilakaera 2005 eta 2016 urteen artean.

**BPG per capita-ren bilakaera 2005-2016 (%)**



### 4.3.3 Establezimenduen bilakaera 2012-2018




#### Fitxa teknikoa:

Iturria: EUSTAT eta Euskalgeo.


Erreferentzia urtea: 2012 eta 2018.

Azalpena: Establezimendu kopuruaren bilakaera 2012 eta 2018 urteen bitartean.

### Establezimenduen bilakaera 2012-2018 (%)



#### 4.3.4 Lehen sektoreko establezimenduen tasa




##### Fitxa teknikoa:


Iturria: EUSTAT eta Euskalgeo.

Erreferentzia urtea: 2018.

Azalpena: Lehen sektoreko establezimenduen ehunekoa establezimendu guztiekiko.



### 4.3.5 Industriako establezimenduen tasa




#### Fitxa teknikoa:

Iturria: EUSTAT eta Euskalgeo.


Erreferentzia urtea: 2018.

Azalpena: Industria sektoreko establezimenduen ehunekoa establezimendu guztiekiko.

#### Industriako establezimenduen tasa (%)



### 4.3.6 Lehen sektorearen BEG




#### Fitxa teknikoa:


Iturria: EUSTAT eta Euskalgeo.

Erreferentzia urtea: 2016.

Azalpena: Lehen sektoreak udalerriko balio erantsi gordinen duen ehunekoa.



### 4.3.7 Industria sektorearen BEG




#### Fitxa teknikoa:


Iturria: EUSTAT eta Euskalgeo.

Erreferentzia urtea: 2016.

Azalpena: Lehen sektoreak udalerriko balio erantsi gordinean duen ehunekoa.



### 4.3.8 Enplegu nahikotasuna




#### Fitxa teknikoa:


Iturria: EUSTAT eta Euskalgeo.

Erreferentzia urtea: 2018.

Azalpena: Udalerriko enpleguen eta biztanle aktiboaren arteko ratioa.



### 4.3.9 Langabezia tasa




#### Fitxa teknikoa:

Iturria: EUSTAT eta Euskalgeo.


Erreferentzia urtea: 2016.

Azalpena: Biztanleria langabetuaren ehunekoa biztanleria aktiboarekiko.





### 4.3.10 Langabezia tasaren genero diferentzia




**Fitxa teknikoa:**

Iturria: EUSTAT eta Euskalgeo.


Erreferentzia urtea: 2016.

Azalpena: Emakumeen eta gizonen langabezia tasaren arteko diferentzia.

### Langabezia tasaren genero diferentzia (-)



### 4.3.11 Aktibitate tasa




#### Fitxa teknikoa:


Iturria: EUSTAT eta Euskalgeo.

Erreferentzia urtea: 2016.

Azalpena: Biztanleria aktiboaren ehunekoa lan adinean dagoen biztanleriarekiko.



### 4.3.12 Aktibitate tasaren genero diferentzia




**Fitxa teknikoa:**

Iturria: EUSTAT eta Euskalgeo.

Erreferentzia urtea: 2016.


Azalpena: Emakumeen eta gizonen aktibitate tasaren arteko diferentzia.

### Aktibitate tasaren genero diferentzia (-)



## 4.4 INGURUMENA ETA METABOLISMO SOZIALA

### 4.4.1 Artifizializatutako lurren indizea




#### Fitxa teknikoa:


Iturria: SIGPAC, INE eta Euskalgeo.

Erreferentzia urtea: 2018.

Azalpena: 100 biztanleko artifizializatutako hektarea kopurua.



#### 4.4.2 Elikadura sorkuntzarako lurren indizea




##### Fitxa teknikoa:

Iturria: SIGPAC, INE eta Euskalgeo.


Erreferentzia urtea: 2018.

Azalpena: 100 biztanleko elikadura sorkuntzarako hektarea kopurua.

**Elikadura sorkuntz. lurren indizea  
(ha/100 bizt.)**



### 4.4.3 Ur kontsumo indizea




#### Fitxa teknikoa:


Iturria: Eusko Jaurlaritzaren eta Euskalgeoko.

Erreferentzia urtea: 2016.


Azalpena: Biztanleko urtean kontsumitzen den ur kopurua litrotan.



#### 4.4.4 Energia kontsumo indizea



#### Energia kontsumo indizea (kWh/100 bizt.)




#### Fitxa teknikoa:

Iturria: Eusko Jaurlaritza eta Euskalgeo.


Erreferentzia urtea: 2018.

Azalpena: Biztanleko urtean kontsumitzen de elektrizitate kopurua kWh-tan.

#### 4.4.5 Instalaturako energia berriztagarrien indizea



**Inst. energia berriztagarrien indizea (kW/100bizt.)**



**Fitxa teknikoa:**


Iturria: EUSTAT eta Euskalgeo.

Erreferentzia urtea: 2017.

Azalpena: 100 biztanleko udalerrian instalatuta dagoen energia berriztagarrien sorkuntzarako potentzia.



#### 4.4.6 Hondakinen sorrera indizea




##### Fitxa teknikoa:

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia eta Euskalgeo.


Erreferentzia urtea: 2018.

Azalpena: Biztanleko urtean sortzen den hondakin kopurua kilogramotan.

#### Hondakinen sorrera indizea (kg/bizt.)



#### 4.4.7 Birziklatze tasa




#### Fitxa teknikoa:

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia eta Euskalgeo.

Erreferentzia urtea: 2018.


Azalpena: Modu sailkatuan biltzen den hondakinen ehunekoa sortutako hondakin kopuru osoarekiko.



# **5 / ESPERIENTZIEN BALORAZIOA**

Lan honetan Euskal Herriko zein Europako herri txikietan burutu diren proiektu sozioekonomiko desberdinak aztertu eta katalogatu dira. Bildutako proiektu bakoitzak bere izaera propioa du, baina maila batean edo bestean, komunitatea traxionatzea dute helburu. Ez gara nahi genituzkeen esperientzia guztiak jorrazera iritsi, baina jasotakoak, egun Euskal Herrian egiten denaren agertoki aski osatua dela esango genuke.

Proiektuak taldekatzen hasita, Euskal Herriko esperientzien artean udalerraren ikuspegi sistemikoa duten proiektuak lehenetsi behar dira. Bide horretan kokatzen dira Orendaineko, Zeraingo, Alkizako edota Baigorriko proiektuak. Izan ere, herri-eredu argi bat irudikatzeak eragile desberdinak norabide berean lan egitea errazten du, eta ondorioz, bizitza komunitarioa indartzeko beharrezkoa den masa kritikoa aktibatze gaitasuna du.



**Irudia 11:** Aztertutako Euskal Herriko esperientzien geolokalizazioa.

Bestalde, herri txikietan falta ziren oinarrizko zerbitzuak eskaintzeko aurrera atera diren ekintzailtza proiektuak zein ekimen instituzionalak sailka daitezke. Horren adibide dira Orexako ostataua, Apeztegi berriko denda-taberna edota Aiako Lur Alkartasuna Kooperatiba. Esperientzia horiek ostatu edota denda funtzioa betetzeaz haratago, bizitza komunitarioa indartzeko balio dute: bertan dinamizatzen da herriko bizitza asoziatiboa eta kulturala.

Herri txikien ezaugarriak eta kokapena trantsizio energetikoa eta elikadura burujabetza proiektuak ekiteko aproposak dira. Horrelako proiektuek, gainera, ingurugiroarekin abegikorragoa den bizi estilo bat balioan jartzeko gaitasuna dute, komunitate horiek sozialki zein ekonomikoki erakargarri eginez. Dinamika horren barruan daude Baztango elikadura burujabetza estrategia, Lizarragako mikrosarea edota Izabako energia komertzializatzaile municipalak.

Azpimarratu behar den beste esperientzia multzo bat ekintzailtza proiektuek osatzen dute, izan pertsonalak zein kolektiboak. Horrelako negozioak herri txikiak balioan jartzen dituzte, beraien ondare naturala eta kulturala errespetatuz eta zabalduz. Zentzu horretan, Beizamako Ingurumen Aterpetxea, Zeraingo Txirbil eta Txindokiko Itzala enpresak dira katalogatutako esperientziak.

Azkenik, lankidetzak komunitarioaren bidez burutzen diren ekimenak jarri behar dira balioan. Izan ere, auzolanean burutzen diren dinamikak herriko kohesio soziala indartzeko modua dira. Zentzu horretan, Zegama-Aizkorriko mendi maratoia eta adineko pertsonen zaintzarako Landalab esperientzia eredugarriak dira.

Nolanahi ere, herri txikietan aurrera eramaten den dinamika gehienek, izan herriko eragile desberdinek abiatuta edota udalak martxan jarritako proiektua, bizilagunen inplikazioa bereganatze gaitasun handia erakusten dute. Izan ere, proiektuak oso modu zuzenean eragin ohi dute herritarrengan, eta horrek beraien inplikazioa indartzen du. Modu honetan, edozein ekimen abiatzea herri txikien berezko izaera komunitarioa indartzeko eta herriaren geroa bermatzeko beharrezkoa den masa kritikoa eragiteko bidea da.

Bestalde, azpimarratu behar da edozein aktibitate ekonomiko endogeno berri herri txiki batean sortzeak duen garrantzia. Herriko bizilagunak herrian bertan enplegatzea biztanleria bertan errotzeko eta udalerraren bizitza komunitarioa indartzeko gakoetako bat. Horren adibide dira Beizamako Ingurumen Aterpetxea, Oresako Ostua edota Izabako Ezka Ibaia Energia establezimendua.

Bestalde, aztertu diren beste hainbat esperientziak lanpostu zuzenak sortzen ez badituzte ere (Zegama-Aizkorri Mendi Maratoia, Landalab edota Errezilgo Ibarbi Sagarra Elkarteak, esaterako), horiek zeharka duten eragin ekonomikoa ere handia da. Izan ere herri dinamiko batentzat askoz bideragarriagoa da aktibitate berriak sortu edota edozein zerbitzu mantentzea.

Esan gabe doa, antzeko proiektu gehiago izan daitezkeela katalogo honetatik landa. Proiektu honen muga baitan elementu determinanteak biltzeko lana egin da, katalogo oso osoa egitearen kaltetan. Aukera izan hala esperientzia berriak bilduko dira.

# **6 / ERANSKINA II: ESPERIENTZIEN KATALOGAZIOA**

## 6.1 ORENDAIN: GUZTION ONERAKO EKONOMIA (GOE)

### Deskribapena eta helburu nagusiak:

Guztion Onerako Ekonomia (GOE) mugimendua oinarri hartuta justizia soziala sustatzeko, solidaritatea indartzeko, iraunkortasuna bultzatzeko eta parte-hartzea zein demokrazia indartzeko proiektu desberdinei ekin dio udalerrriak, eta ondorioz, bere dinamismoa asko indartu du.

Azpimarragarriak diren proiektuak ondorengoak dira:

- Baserrien birgaitzearen bidezko etxebizitza esleipenak.
- Zero Zabor dinamika.
- Ohitura jasangarriak sustatzeko dirulaguntzak.
- Zuntz optiko eta Wi-Fi sare publikoa.
- Baso Eskola sortzeko saiakera.
- Produktu lokalen salerosketa.
- Auzolana.

### Epealdia eta prozesuaren azalpena:

Proiektua Christian Felberrekin (GOE) izandako topaketa batetik abiatu zen (2012). Bertan hainbat konpromezu hartu zituen udalak: herriari eta bertako enpresei GOEren balantzea pasatzea, proiektua eskualdean zabaltzea, herri asanblada demokratikoa martxan jartzea eta bizi kalitatearen inguruko galdeketa egitea.

Iraunkortasun eta eraldaketa praktiketarako markoa erabiltzeko ideiarekin Transition Network sarearekin bat egin zuen udalerrriak (2016).

Metodologia honen oinarri nagusietako bat herritarren parte-hartzea eta erabakiak hartzeko gardentasuna dira. Galdetegi baten bidez (%80-95 erantzun maila) bizilagunek proposamen desberdinak onartu eta hurrengo galdeketa txertatzeko ekimen berriak proposatzen dituzte. Galdeketa emaitzekin hausnarketa kolektibo bat egiten da, eta urteko herri batzarrean (etxeen %50eko parte-hartzea) estrategiak eta proiektuak berresten dira.

### Herritarren parte-hartzea eta eragin ekonomikoa:

Orendaingo Udala proiektu honen sustatzailea izan bada ere, herritarrengan delegatu du ardura parte-hartze mekanismo desberdinen bitartez (galdeketa eta asanbladak). Gainera, proiektu desberdinak aurrera eramateko hainbat talde sortu dira: Orendaingo Sorgiñak, Eltxotrail, Trikitixa taldea, Baso Eskola...

Proiektuak udalerrian izan duen eragin ekonomikoa hainbat aspektu desberdinetan antzeman daiteke:

- Lanpostu berrien sorrera: parte-hartze prozesuetarako eta hondakinen kudeaketarako langile gehigarri bat.
- Produktore lokalen indartzea eta enpresa berrien sorrera (Talaia Telekomunikazio Operadorea).
- Gastu zehatzen murrizketa eta inbertsio eta diru-laguntza berriak finkatzeko gaitasuna.

### Parte hartu duten eragileak:

Orendaingo Udala eta herritarrak dira dinamika honen aktore nagusiak.

### Aurrekontua, finantzaketa eta baliabideak:

Proiektuen finantzaketa mekanismoa: dirulaguntzak (%60) eta udala (%40). Dirulaguntza iturriak GFA, EJ edota LEADER proiektuak izan dira. Baliabideei dagokionez, proiektu bakoitzak eskatzen duen baliabide material konkretuaz gain (espazioa, eraikina...) parte-hartze teknikari bat eta alkatearen inplikazioa ezinbestekoa izan dira.

### Zailtasunak:

Administrazioaren eta eragile desberdinen mesfidantza proiektuen izaera dela-eta. Finantzaketa lortzeko arazoak. Galdeketa parte-hartzea handia da, baina asanbladetan apalagoa da.

**Kontaktua:** [egiagorka@gmail.com](mailto:egiagorka@gmail.com)

## 6.2 ALKIZA: INGURUMENARI LOTUTAKO HERRIA

### Deskribapena eta helburu nagusiak:

Alkizak industriarik eta hau garatzeko lekurik ez duen udalerrria da. Hori dela eta, udalerrriak bere etorkizuna ingurumenari eta bertan ematen diren aktibitateei hertsiki lotua joan behar zuela ondorioztatu zuen. Bide horretan, Hernio-Gazume eremua Natura 2000 sarearen barruan dagoela baliatuta, bere zaintzarako beharrezkoak diren aktibitateak martxan jarri ditu, eta horiek baliatu ditu dinamika berriak sortzeko.

Azpimarragarriak diren proiektuak ondorengoak dira:

- Bioaniztasuna sustatzeko larreen mantentzea eta berrerabilera, eta ondorioz, lehen sektorearen aktibazioa.
- Fagus-Alkiza interpretazio zentroa eta sormenaren kabia.
- Naturari eta turismoari lotutako aktibitate endogenoen sorrera.
- Ingurumen hezkuntza eta baso eskola.

### Epealdia eta prozesuaren azalpena:

Agenda 21aren parte-hartze prozesuak (2004) eta Tolomendik herri txikien inguruan martxan jarri zuen proiektu pilotu batek (2005) herriaren etorkizunaren inguruko gogoetak finkatu zituen.

Alkizako Udalak garapen eredu propioa izateko udal ordenantzak moldatzeko konpromezua hartu zuen (2009). Hernio-Gazume eremua Natura 2000 sarean sartu zen (2010), eta hori baliatuta, bioaniztasuna babesteko helburuarekin udala larreak bereganatu eta horiek berrerabiltzeko prozesua abiatu zuen.

Fagus-Alkiza interpretazio zentroa martxan jartzearekin batera (2013) naturari, kulturari eta gizakiari lotutako aktibitateak balioan jartzen hasi ziren. Azkenik, zehaztu behar da AktibaTu (2019) jardunaldiaren ostean, turismo iraunkorraren aldeko ekimenak martxan jartzea erabaki zuten.

### Herritarren parte-hartzea eta eragin ekonomikoa:

Agenda 21aren eta Lurralde Antolamenduko Gidalerroen baitan egindako parte-hartze prozesuetan herritarrek parte-hartu bazuten ere, ondorengo urratsetan ez ziren oso aktibo egon. Prozesuak aurrera egin ahala, ordea, bizilagunek bere egin dute dinamika eta proiektuak herri izaera hartu du.

Eragin ekonomikoa epe luzera neurtuko bada ere, bi gauza azpimarratu behar dira: lehen sektorearen berraktibazioa erdietsi da, batetik, eta naturari eta turismoari lotutako aktibitate endogenoak (Urruzola Txakolindegia, Lete Nekazaletxea, Ur Mara Museoa) abiatu dira, bestetik. Gainera, ostatua urte osoan zehar martxan egotea bermatu da (eskolako jangela ere bertan egiten dute).

Bestalde, ingurumen hezkuntzari lotutako proiektuak Alkizako Baso Eskola erreferentzia izatea lortu du. Eraikin berri bat egiten ari dira eskolarentzat, eta horrela, zerbitzua herrian mantentzea bermatu dute.

### Parte hartu duten eragileak:

Alkizako Udala, Tolomendi eta Tolosaldea Garatzen.

### Aurrekontua, finantzaketa eta baliabideak:

Urtean 80.000-100.000€ inguruko aurrekontua dirulaguntzen (%90) eta udalaren (%10) bidez finantziatua. Dirulaguntza iturri nagusia EJ izan da, baina GFA eta Europako proiektuak ere baliatu dira. Baliabide material nagusia interpretazio zentroaren eraikina izan da. Horrez gain, ingurumen eta parte-hartze teknikariak beharrezkoak izan dira.

### Zailtasunak:

Hasieran jendea ez zen proiektuan inplikatu, eta ondorioz, bertikalegia izan zen. Hainbat talka egon dira ikuspegi ekologikoa dela eta. Dirulaguntzarik ez baliabide pertsonalak kontratatzeko.

**Kontaktua:** [kultura@alkiza.eus](mailto:kultura@alkiza.eus)



### 6.3 ZERAIN PAISAIA KULTURALA

#### Deskribapena eta helburu nagusiak:

Zerain Paisaia Kulturala herriko garapen sozioekonomikoa sustatzeko bertako ondare natural eta kulturala balioan jarri zituen proiektua izan zen. Ekimen honen helburua Zerainen garapen sozioekonomikoa izan zen: herritarren oinarrizko beharrak asetzeko zerbitzuak eskaintzea, batetik, eta aktibitate ekonomiko endogenoak sortzea, bestetik.

Prozesu honen emaitza dira:

- Zerbitzu desberdinak eskaintzen dituen turismo bulegoa.
- Lurren berrerabilera: artzaintzarako edota kalitatezko zura sortzeko.
- Lehen sektorearen indartzea eta produktu berrien ekoizpena.
- Zurgintzari lotutako aktibitateak.
- Agroturismoak, gaztagileak edota sagardotegiak bezalako aktibitateak.

#### Epealdia eta prozesuaren azalpena:

70. eta 80. hamarkadetan biztanleria galerari aurre egiteko oinarrizko beharrak asetzeko ekimenak martxan jarri ziren: etxebizitza kooperatiba, herri eskola edota kultur taldea. Azken honetatik herri identitatea indartzeko dinamikak eta ondarea berreskuratzeko ekimenak abiatu ziren. Halaber, Zaharkinak proiektuari esker herrian bildutako objektuekin museoak ireki zuten (1993).

Museoaren eta berreskuratutako ondare kulturalaren bueltan turismo iraunkorra sustatzeko turismo bulegoa martxan jarri zuten (1994). Espazio hori, gainera, herrian ekoiztutako produktuak saltzeko, oinarrizko produktuak saltzeko eta ostatua izateko baliatu zen. Bide berean, herria Aizkorriko parke naturalaren eremuan sartzea eta meategi zaharrak berreskuratzea lortu zuten (1998).

Azaldutako prozesua aktibitate endogeno desberdinak abiatzeko ezinbestekoak izan zen, eta orduan hasitako proiektu gehienak autofinantzazioaz aurrera darraite.

#### Herritarren parte-hartzea eta eragin ekonomikoa:

Herritarrak izan dira hasieratik proiektu honen aktibo nagusia. Horretarako Zerain Dezagun Fundazioa sortzen da herriaren izaera komunitarioa indartu eta herriaren garapen ekonomikoaren inguruan gogoeta egiteko.

Proiektu honek kuantifikatu ezin diren hainbat alor ditu: herriaren identitate komunitarioa edota berreskuratutako ondare naturala eta kulturala, esaterako.

Ikuspegi ekonomikotik ondorengo emaitzak azpimarratu daitezke:

- Turismo bulegoko aktibitateak: aldi bereko 7 lanpostu izatera iritsi zen.
- Lehen sektoreari lotutako aktibitate berriak.
- Aktibitate endogeno desberdinak: agroturismoak, gaztagileak, sagardotegiak edota zurgintza.

#### Parte hartu duten eragileak:

Udala, Kultur Taldea eta Zerain Dezagun fundazioa izan dira herriaren garapen sozioekonomikorako eragile nagusiak. Landa garapenerako elkarteak (Goimen) ere eragile aktiboa izan da.

#### Aurrekontua, finantzaketa eta baliabideak:

Proiektu desberdin oro udalaren baliabideen eta diru-laguntzen bidez jarri zen martxan. Behin horiek funtzionamenduan, autofinantziazio egin dira. Finantzaketa iturri nagusiak GFAko, EJ edota Europako diru-laguntzak izan dira. Gainerako baliabideei dagokionez, pertsona baten kontratazioa beharrezkoa izan zen.

#### Zailtasunak:

Azaleratu den zailtasunetako bat egitura administratibo konplexuak proiektuen finantzaketan eta garapenean eragiten duen muga izan da.

**Kontaktua:** [turismobulegoa@zerain.eus](mailto:turismobulegoa@zerain.eus)

## 6.4 OREXAKO OSTATUA

### Deskribapena eta helburu nagusiak:

Orexako ostatua Orexa Bizirik gogoeta prozesuaren ostean abiatutako proiektua da. Helburua herriko bizitza komunitarioa indartzea eta gazteak bertan errotzeko herri aktibo eta erakargarri egitea da. Hori erdiesteko, ostatua elementu estrategiko nagusietako bat bilakatu da.

Bere funtzioak ondorengoak dira:

- Lurra eta bertako produktuak bereizgarri dituen taberna izatea.
- Herriko jendea biltzeko eta ekintzak antolatzeko espazioa izatea.
- Bisitarien harrera bulegoa izatea eta herriak eskaintzen duena bisitarien esku jartzea.
- Orexako eta eskualdeko produktu espezializatuak saltzeko denda izatea.

Horrez gain, ostatuan bertan etxebizitza bat egokitu da beharren arabera apartamentu turistiko bezala erabiltzeko edo emergentzia sozialetara bideratzeko.

### Epealdia eta prozesuaren azalpena:

Udalerrriak herri estrategia definitzeko Orexa Bizirik prozesua burutu zuen (2012). Bertan lau ildo estrategiko zehaztu ziren: ostatuaren funtzioak berritzea, Oihan Txiki Kooperatibaren eredu sakontzea, energia berriztagarrien alde egitea eta herri marka indartzea.

Bestalde, Tolomendirekin eta HAZIrekin elkarlanean herriko zein eskualdeko ostatuaren egoeraren eta eskaini beharrekoaren diagnostikoa egin zuen (2016). Azterketa horri Orexako Udalak Orexa Bizirik prozesuan ostatuak izan beharreko funtzioak gehitu zizkion, eta horren arabera diseinatu zuen plegua: alokairu sinboliko baten bidez elkarlan publiko-pribatuari ekiten zaio, eta bertan ostatuaren dinamizatzaile funtzioa lehenesten da.

Orexako ostatu berria 2017 abenduan jarri zen martxan. Gaur egun, ostatua denda espezializatua izateko eta ekintza kultural berriak eskaintzeko garapen fase berri batean murgilduta dago.

### Herritarren parte-hartzea eta eragin ekonomikoa:

Agenda 21 eta Orexa Bizirik prozesu parte-hartzaileetan herritarrak aktibo nagusia izan dira. Ostatuak herriko aktibitate desberdinak biltzen dituen gunea bilakatu da, eta herritarrak agente aktibo dira horretan.

Proiektuaren eragin ekonomikoa epe ertain-luzera ikusiko bada ere, gaur egun Orexako ostatuak lanaldi osoko 4 lanpostu sortzen ditu. Aintzat hartu behar da ostalaritza eskaintzak herriko eta inguruko produktuetan oinarritzen dela, bertako ekoizpenak indartuz. Gainera, bertan ezarriko den dendak herriko Oihan Txiki kooperatiba indartzea du helburu bezala.

### Parte hartu duten eragileak:

Orexako udala, Tolomendi, HAZI, Gipuzkoako Ostalari Elkarte eta Tolosaldea Garatzeneko turismo teknikaria izan dira

### Aurrekontua, finantzaketa eta baliabideak:

Proiektuaren bideragarritasuna (400.000€ inguru) diru-laguntzen (%65) eta udalaren zorpetzearen bidez (%35) bermatu da. Diru-laguntza iturriak GFA, EJ eta LEADER proiektuak izan dira, bereziki. Baliabide pertsonalei dagokionez diru-laguntzak eta parte-hartzea bideratzeko teknikari bat beharrezkoa izan da.

### Zailtasunak:

Ez da ezer zehaztu.

**Kontaktua:** [e.maioz@ehbildu.eus](mailto:e.maioz@ehbildu.eus)

## 6.5 APEZTEGIBERRIKO DENTA-TABERNA

### Deskribapena eta helburu nagusiak:

Ernaizu S.COOP. Basaburua haranean zerbitzuak eta iharduera ekonomikoa sortzeko jaio zen. Nafarroako iparraldean dagoen harana da Basaburua, azken 40 urteetan populazioaren beherakada eta honen maskulinizazio handia jasan du, batetik, eta zerbitzu eta iharduera ekonomikoen beherakada, bestetik.

Kooperatibaren helburu haranean populazioa finkatu eta biztanleen bizitza errazteaz gain, lurraldea zaintzeko adina pertsona eta dinamika mantentzea da. Hori dela eta, Ernaizuk lana eta zerbitzuak sortzeko bokazioa du hainbat ardatz kontua izanik:

- Bizitzaren zaintza, lana, aisialdia eta familia ahalbideratzeko erraztasuna.
- Kultura eta hizkuntzaren zaintza.
- Inguruaren zaintza eta baliabideen errespetuzko aprobetxamendua.
- Kohesio soziala, herrien arteko harremana eta haranaren identitatea gorpuztu.
- Kooperatibismoa, asoziazionismoa eta herri dinamiketan parte hartzea.

### Epealdia eta prozesuaren azalpena:

Haraneko emakume talde txiki batek sortu zuen zerbitzu kooperatibaren ideia eta Ernaizu kooperatiba abiatu zuten (2011). Garai berean Basaburuako Udaleko Garapen Batzordeak haranaren erdigunean dagoen Jauntsarats herrian denda eta ostatu baten beharra ikusi zuten, eta horrela, Apeztegierriko Denda-Taberna egin eta kudeaketa lehiaketara atera zuen (10 urte ziren azken denda itxi zela).

Ernaizuk bere ideia gorpuzteko aukera ikusi zuen: lehiaketara aurkeztu eta irabazi zuen. Jarraian, Orokietako kontzejuarena den ostatuaren kudeaketa ere Ernaizu kooperatibaren esku geratu zen (2016). Bertan Eskape Room, pentsioa eta ostatu proiektua martxan jarri zuten.

Sorreratik Ernaizu kooperatibak gobernantza eredu eta antolaketa erabat horizontalak dira. Iharduera guztietan kooperatibaren bost ardatzak aplikatzen dira. Gaur egun emakumeek osatutako kooperatiba da.

### Herritarren parte-hartzea eta eragin ekonomikoa:

Haraneko herritarrek harrera ezin hobea egin diote proiektuari, gaur egun Apeztegierriko denda-taberna haraneko herri desberdinen arteko biztanleen bilgunearen funtzioa betetzen du. Oinarrizko zerbitzuak eskaintzen ditu eta bisitari eta bertakoentzat erreferentzia puntua da.

Eragin ekonomikoari dagokionez, Ernaizu kooperatibak gaur egun 17 langile ditu. Aipatu behar da langile gehienek lanaldi murriztuak dituztela enplegua beraien bizitzako hainbat arlorekin bateragarri izateko.

Gainera, emakumeek kudeatutako proiektu berritzailea da eta hainbat baloreri lotutako iharduera aurrera daramate. Gauzak beste modu batera egin daitezke frogatu dute

### Parte hartu duten eragileak:

Ernaizu kooperatiba, Basaburuako Udala eta Orokietako kontzejuak dira proiektu honen eragile nagusiak.

### Aurrekontua, finantzaketa eta baliabideak:

Kideen aportazioa txikia izan da; banku zein partikularren mailegu bidez finantzatu dute beraien jardura. Beharrezko baliabide materialak ostatuak dira, alokairu bidez kudeatzen direnak. Baliabide pertsonalei dagokionez, hamaika emakumeren gogoia eta ilusioa ezinbestekoa izan da proiektua aurrera ateratzeko.

### Zailtasunak:

Landa-eremuko irisgarritasun eza, hornitzaile eza edota bezero kopuru urria arazo izan dira. Era berean, proiektua bideragarri izateko beharrezkoa izan da hainbat momentutan soldatak jaitea. Halaber, lanaldi murriztuak langileen bizitzen beharretara egokitzeko marko legal eza ere arazo izan da.

**Kontaktua:** [ernaizu@gmail.com](mailto:ernaizu@gmail.com)

## 6.6 AIAKO LUR ALKARTASUNA KOOPERATIBA

### Deskribapena eta helburu nagusiak:

Lur Alkartasuna Kontsumo Kooperatiba honen helburu nagusia herritarrei (kooperatibakoak izan edo ez) lehentasunezkoak eta beharrezkoak diren zerbitzuak eskaintzea da. Horretarako bi eremu konkretu ditu: supermerkatua eta almazena. Kooperatibak baserrirako eta baratzerako produktuak, burdindegia, laborantzarako materiala eskaintzen die baserritarrei, eta baita bertan paketeria jasotzeko aukera ere.

Bide horretan, kooperatiba herriaren bilakaeran eta geroan eragiten duen proiektu aktibo baten parte izateko aukera da; herrigintza proiektu bat, alegia. Izan ere, kooperatiba existituko ez balitz herrian inork ez luke zerbitzu horiek eskaintzen dituen espaziorik sortuko. Bide horretan, kooperatibak handitu eta bere zerbitzuak Aiako herritarren beharretara egokitu nahi ditu. Kontsumo eredu berrien aurrean (online zein saltoki handiak) kooperatibak sortu zen gaietako helburu berdinak mantentzen ditu: herria eraikiz, herri txikiek merezi duten zerbitzu duin bat eskaintzea.

### Epealdia eta prozesuaren azalpena:

Kooperatiba 1921ean sortu zen Gabino Alustiza bultzadaz, zinegotzia garai haietan eta Alkatea beranduago, fusilatua izan zena gudan abertzalea eta herriaren alde lana egin izanagatik. Helburua herriko baserritarrei lehengaiak eskuragarri jartzea eta ekonomia lokala sustatzea izan zen. 1925 urtean 2016 arte martxan egon zen denda erosi zuten.

2000 urtean kooperatibak Lur S. COOP. Bereganatu zuen eta 2002 urtean gaur egun duen izena hartu zuen. Azken urteetan hainbat lan egin dira, hala nola almazena berritu eta zerbitzu berriak ezarri (2012), supermerkatu berria eraiki (2016) edota baserritarrentzat makineri berria erosi (2018).

2018an bi denden arduradun bat ezarri zuten kudeaketa hobetzeko helburuarekin. Horretarako, Urkomeren laguntza eta HAZIren programa bat baliatu dute. Gaur egun, prozesu luze baten ostean, Eusko Jaurlaritzaren Onura Publikoko Kooperatibaren izendapena jasotzea espero dute.

### Herritarren parte-hartzea eta eragin ekonomikoa:

Kooperatibako bazkideak eta erabiltzaileak Aiako bizilagunak dira. 220 familiak osatzen dute gau egun kooperatiba; hau da, ia herriko biztanleriaren erdia kooperatibara lotuta dago. 2019an herritarren artean galdetegi bat egin zuten, eta bertatik ateratako ondorio garrantzitsuenetako bat da kooperatibaren itxierak herritarrengan eta berain eguneroko beharretan eragingo lukeen hutsunea.

Kooperatibak ez du irabazi asmorik; herri onurako zerbitzu bezala izendatzeko prozesua egiten ari da. Bazkideak herritarrek zein langileak herritarrek dira, eta kooperatibako batzorde zuzendariak borondatez egiten du lan (bi urtetik behin aldatzen da).

Aspektu ekonomikoaren ikuspuntutik, aktibitateak sei lanpostu egonkor sortzen ditu herrian, eta beharrezko ordezkapenak egiteko herriko langabetuak kontratatzen dituzte. Gainera, herriko produktuak eta ekoizleak indartu nahi ditu horiei lehentasuna emanez. aukera bat eman nahi diegu.

### Parte hartu duten eragileak:

Aiako Udaletxea, Urkome, HAZI, GFA eta EJ izan dira eragile nagusiak.

### Aurrekontua, finantzaketa eta baliabideak:

Beharrezko inbertsioak egiteko kooperatibak bere baliabideez gain Urkome, GFA eta EJ laguntza izan du. Baliabide pertsonalei dagokionez, kooperatibako sei langileez gain batzorde zuzendariko kideak aipatu behar dira. Baliabide materialak, berriz, supermerkatuaren eta almazenaren eraikina dira.

### Zailtasunak:

Zailtasun handiena kudeaketa profesional bat egitea izan da. Izan ere, urteetako kudeaketa oso modu zaharkituan egin izan da.

**Kontaktua:** [luralkar@gmail.com](mailto:luralkar@gmail.com)

## 6.7 BAZTAN: ELIKADURA BURUJABETZA ESTRATEGIA

### Deskribapena eta helburu nagusiak:

Baztanek, ekinaren ekinez, hainbat dinamika desberdin jarri ditu martxan. Horiek bere osotasunean aintzat hartuta, elikadura burujabetza estrategia orokor baten bideari ekin diote. Proiektuaren helburu nagusia lurraldeari lotuta dagoen tokiko elikadura sistema indartzea eta tokiko garapen eredu propio baten bideari ekitea da. Bertan biltzen diren ekimen garrantzitsuenak ondorengoak dira:

- Zer Jan Halako Baztan: tokiko elikagaien kontsumoaz arduratzeko programa.
- Eskolako jangela eredu aldatzeko proiektua.
- Udal hiltegia tokiko ekonomiarako tresna bezala erabiltzeko egokitzea.
- Larre komunalak kudeatzeko ordenantza berria.
- Baztango Zaporeak: lehen gaien ekoizle eta produktoreen elkarte.
- Arras Baztan: herri proiektua artikulatzeko tokiko marka.

### Epealdia eta prozesuaren azalpena:

Erdizeko meategiaren (2001) eta Aroztegiaren (2008) proiektuek garapen eredu propio baten behararen inguruko hausnarketa eragin zuen herrigintzan. Izan ere, kanpoko ekimenek udalerriko garapen eredu baldintzatzen zutela ikusi zen, herritarrek horren gaineko inongo kontrolik izan gabe.

2011ko udal hauteskundearen ostean Baztango udalak hausnarketa horren inguruko erronka hartu eta proiektuak dinamizatzen hasi zen, eta ondorioz, Hazitik Hozie gogoetaldi prozesua burutu zuten (2012-2013). Prozesu horren ondoren aipatutako dinamika desberdinak aktibatzeari ekin zitzaion.

Gaur egun, dinamika desberdinen artean Arras Baztanek hartu du indar handiena (2018). Herri proiektua (eta bere garapen sozioekonomikoa) artikulatzeko herri marka da, eta bertan elikadura burujabetzak zein paisaiaren zaintzak garrantzia berezia dute.

### Herritarren parte-hartzea eta eragin ekonomikoa:

Baztanen garapen sozioekonomiko eredu justu eta iraunkor bat erdiesteko bidea herritarren gogoeta prozesu baten ondorioz abiatu zen. Herritarrak, beraz, prozesu honen aktibo garrantzitsua izan dira. Gaur egun ere herritarren aktibazio maila handia da. Horren adibide da elkarte desberdinen bidez (Baztango Zaporeak, Prest!, Bertan!, Baztango artisauak...) dinamika desberdinetan parte hartu duten herritarrak.

Kuantifikazio ekonomikoa epe luzera aztertu beharko bada ere, dinamika honek lehen sektorearen aktibitatea indartu eta belaunaldi ordezkapena bermatzea ahalbidetu du. Udal hiltegiaren aktibitateak esaterako 5-6 lanpostu sortu ditu. Bide berean, produktore lokalen indartze nabarmen bat eta bertako produktuen kontsumo igoera antzeman da.

### Parte hartu duten eragileak:

Baztango udala, CEDERNA-GARALUR eta herriko beste hainbat eragilek (Baztango Zaporeak, Prest!, Bertan!, Baztango artisauak...) hartzen dute parte dinamika desberdinetan-

### Aurrekontua, finantzaketa eta baliabideak:

Proiektuen finantzaketa iturri nagusia udala bera izan da. Arras Baztanek, esaterako, 30.000€ inguruko aurrekontua du. Kasu honetan %70a Europako proiektuek finantzatu dute, eta gainerako %30 udalak. Baliabide pertsonalei dagokionez, udaleko zein CEDERNA-GARALURREKO teknikariak beharrezkoak izan dira.

### Zailtasunak:

Zailtasunetako bat helburu argiak zehaztea zan da, dinamismotik ekimen konkretuak sortzea. Gainera, askotan eragile desberdinen arteko sintonia lortzea ez da erraza.

**Kontaktua:** [jotondo@baztan.eus](mailto:jotondo@baztan.eus)

## 6.8 LIZARRAGA: ENERGIA MIKROSAREA

### Deskribapena eta helburu nagusiak:

Lizarragako Kontzejuaren burujabetza energetikoa lortu nahi du proiektuak energia berriztagarriak baliatuta. Horretarako, herria energia berriztagarri hornitzen duen mikrosarea ezarri dute bertan: egunez eguzki energia baliatzen du eraikin publikoak argiztatu eta ura biltegietara punpatzeko, eta gauez, berriz, ura askatu eta energia hidraulikoaren bidez elektrizitatea sortzen dute kalea argiztatzeko.

Ekimen honek I+G+b proiektu bat du atxikita (e-HIERA) mikrosareen energia biltegitratzea ur punpaketa bidez aztertzeko.

### Epealdia eta prozesuaren azalpena:

Prozesua Sakanako Garapen Agentziak eskualdeko kontzejuetan egin zuen energia diagnostikoekin hasi zen (2015).

Lizarragako Kontzejuak, inguruko enpresekin batera, mikrosarearen aldeko apustua egin zuen, eta hau garatzeko diru laguntza bat eskatu zuen Nafarroako Gobernuan (2017).

Behin mikrosarea martxan, proiektuak I+G+b-rako dirulaguntzak eskuratu ditu bere garapenean sakontzeko.

### Herritarren parte-hartzea eta eragin ekonomikoa:

Proiektu hau Sakanako Garapen Agentziak bultzatu eta hainbat eragilerekin batera aurrera atera du, baina herritarrek ez dute modu zuzenean bertan parte hartu.

Alor ekonomikoari dagokionez, herria burujabetza energetikoa erdiesteko bidean da. Horrek energia iturri konbentzionalekiko dependentzia eta gastua murrizten du. Elektrizitatea sarean txertatzea, gainera, herriarentzat diru iturri aukera bat da.

Bestalde, eskualdeko hainbat enpresen parte hartu dute proiektuan. Proiektua enpresa horientzat aktibitate ekonomiko gehigarri bat izateaz gain energia berriztagarrietan espezializatzeko aukera eskaintzen die. Zerbitzu horiek eskualdera zabaldu daitezke.

### Parte hartu duten eragileak:

Sakanako Garapen Agentzia izan da proiektuaren dinamizatzailea. Bere garapenerako kontsorzio zabal bat osatu dute: Lizarragako Kontzejua, Nafarroako Gobernuak, CENER, Nilsa, Nafarkoop kooperatiba eta hainbat enpresa (Eseki, Talleres Auxiliares Arania, Ingeniería Iradi eta Permagsa).

### Aurrekontua, finantzaketa eta baliabideak:

Mikrosarearea funtzionamenduan jartzeko 198.000€ behar izan dira, horietatik 80.000 € Nafarroako Gobernuak finantziatu zituen. I+G+b proiektuak, berriz, 2M€ inguruko aurrekontua du. Beharrezko baliabide materialak 60 plaka fotovoltaiko, Pelton turbina bat, bi punpa hidrauliko, bi ur biltegi, 900m-ko kanalizazioa eta kontrol sistema bat izan dira, bereziki.

### Zailtasunak:

Ez da ezer zehaztu.

**Kontaktua:** [aisar.arsuaga@goiener.com](mailto:aisar.arsuaga@goiener.com)

## 6.9 IZABA: ENERGIA KOMERTZIALIZATZAILE PUBLIKOA

### Deskribapena eta helburu nagusiak:

Energia Rio Ezka-Ezka Ibaia Energia Izabako Udalaren elektrizitate komertzializatzailea da. Proiektu honi esker herrian energia elektrikoaren zirkuitu osoa (ekoizpena, banaketa eta salmenta) publikoki kudeatzen da. Horiek horrela, establezimenduak energia Izabako biztanleei zein proiektuan konfiantza duen edonori saltzeko borondatea du.

Proiektuaren helburu nagusia Izabako biztanleei beharrezkoa den baliabide bat gertuko zerbitzu baten bidez eskaintzea da. Hau baliatuta, energia eredu iraunkorrako bat erdiesteko urratsak ematen hasi dira. Izan ere, herrian sortzen den energia berriztagarria da, eta martxan jarri den proiektua, eskala txikian bada ere, gainerako eremuetara zabaltzeko adibide aproposa da. Bide horretan, hedapen lana egiten hasi dira herritarren artean zein kanpoan Izabak duen proiektu turistikoa baliatuta.

### Epealdia eta prozesuaren azalpena:

Ezka Ibaia Energiak 2018 urtean hasi zen fakturatzen. Proiektuari forma ematen, ordea, urtebete lehenago hasi ziren. Dena den, azpimarratu behar da 2008 urteko merkatuaren araudia aldatu aurretik Izabako Udalak argindarra kobratzen ziela herritarrei. Beraz, esan daiteke udalerrria ohikoa zen eredura itzuli dela.

Proiektuak Euskal Herrian izan duen harrera baliatuta, hurrengo helburuetako bat Energia Gela sortzea izango da herriak duen eredu berezia azaldu eta gizarteak orokorrean energiaren kontsumo jasagarriari lotuta dituen erronken inguruko hausnarketa egiteko.

Metodologiari dagokionez, Izabak Aragoiko Pirinioko beste herri batzuekin duen harremana baliatu du haien esperientziak ezagutu eta herrian txertatzeko. Hasiera batean beraien aholkularitza ezinbestekoa izan zen. Ondoren, Madrilen izapide asko egin behar izan dira, argindarraren merkaturuan sartzeko ez baita erraz. Prozesu hori hilabete askoko lana izan zen. Dena behar bezala gainditu ostean Energia Rio Ezka-Ezka Ibaia Energiak funtzionatzen hasi zen.

### Herritarren parte-hartzea eta eragin ekonomikoa:

Komertzializatzaileak harrera oso ona izan du Izaban. Herrian egunero bizi diren pertsona gehienak argindarrak Ezka Ibaia Energiaren bidez erosten dute. Dagoeneko 400 bezero ditu komertzializatzaileak. Gainera, Izaba eredu energetiko iraunkor baten erreferentzia bihurtu daitekeela ikustea oso erakargarria da bertako biztanleentzat; herri harrotasuna indartu du.

Establezimenduaren sorrerak lanpostu egonkor, duin eta epe luzerako bat sortu du, eta hori Pirinioetan oso garrantzitsua da.

Bestalde, aipatu behar da Ezka Ibaia Energiak ez duela dirua irabazteko bokaziorik. Dena den, etorkizunean bezero kopurua handitzen joanez gero, hobekuntzak eta inbertsio berriak egiteko aukerak egongo dira. Zentzu horretan, proiektua hasi besterik ez da egin.

### Parte hartu duten eragileak:

Izabako Udala izan da proiektuan parte hartu duen eragile nagusia.

### Aurrekontua, finantzaketa eta baliabideak:

Komertzializatzailea martxan jartzeko egin behar izan den inbertsioa 8.000€ ingurukoa izan da. Enpresa abian jartzeko eta hainbat izapide egiteko behar den diru kopurua izan da. Bestalde, establezimenduak duen langile bakarrak udal bulegoetan lan egiten du, eta ondorioz, ez da inongo lokalik eskuratu behar izan. Proiektuak izan duen harrera ikusita, finantzazio iturri berriak erdiesteko aukera dagoela uste dute.

### Zailtasunak:

Zailtasunik handienak burokratikoak izan dira. Merkaturuan sartzeko izapide asko egin behar izan dira, eta horrek, prozesua asko mantsotu du.

**Kontaktua:** [izabakoudala@gamil.com](mailto:izabakoudala@gamil.com)



## 6.10 LEGORRETA: ECHEZARRETA PAPER FABRIKAREN BIRGAITZEA

### Deskribapena eta helburu nagusiak:

Proiektu honek Echezarreta paper fabrika zaharra ez eraistea, birgaitzea eta berrerabiltzea du helburu. Izan ere, eraikinak balio arkitektoniko, historiko eta kultural handia du; Legorreta ezin daiteke ulertu Echezarreta paper fabrikarik gabe.

Horrez gain, eraikina biltzen duen gunea udalak duen eremu industrial bakarrenetako bat da, eta eraikina eraitsiko balitz hau galduko litzateke LAGek horrela zehazten baitute uholde arriskua eta errepidearen gertutasuna dela eta.

Legorretako Udalak eraikina birgaitu eta honi berrerabilera eman nahi dio eskualdeko enpresa industrial berriei Echezarreta paper fabrikako hazitegian garatzeko aukera eskainiz. Modu horretan, udalerrriaren dinamika ekonomikoa indartu nahi da. Gainera, eraikina herriko dinamika sozio-kulturala zabaltzeko baliagarria izango da bertan eskainiko diren aisialdi eta kultura zerbitzuei esker.

### Epealdia eta prozesuaren azalpena:

Paper fabrikaren itxiera (2011) eta eraikinaren uzteak honen egoera kaxkarra eragin zuen; hau botatzeko erabakia hartu zuten. Arkitekturako Karrera Amaierako Lan batek (2015) eraikinaren balio arkitektonikoa eta kulturala mahai gainean jarri zuen, eta horrekin batera, udalak industria aktibitatea ez galdu eta sustatzea beharraz gogoeta egin zuen.

GOIEKIk proiektuarekin bat egiten du. Izan ere, Ordiziako enpresa inkubagailua txiki geratu da, eta eraikina enpresa industrial berriak jasotzeko espazio aproposa da. Horiek horrela, 2015ean bertan eraikinaren erausketaren moratoria eskatu zen, eta GFAREN dirulaguntza bat eskuratu zen proiektuaren potentzialitatea aztertzeko. GAC Arkitektura Bulegoak proposamena garatu eta aurkeztu zuen (2017).

Ostera, GFArekin eta EJrekin proiektua bultzatzeko planak egin dira, baina ez da adostasunik lortu. Eraikina erausteko planak aurrera darrai.

### Herritarren parte-hartzea eta eragin ekonomikoa:

Proiektuak oso harrera ona izan du herritarren artean: herriaren ondare kulturala balioan jartzeaz gain herritarrek dituzte behar desberdinak erantzuteko helburua baitu. Hori dela eta, hainbat herritarrek proiektuaren koordinazio mahaian parte hartzen dute. Dena den, proiektuaren bideragarritasuna oraindik ez dagoenez bermatuta ez da herritarren parte-hartzea sustatu.

Bestalde, proiektuak herriko dinamika ekonomikoan eragiteko helburua du. Lehen sektoreak ez du indarrik udalerrian, eta lur industrial gutxi izanik, bertan kokatzen diren enpresak ez dira asko. Enpresa industrial berriak erakarriz herriko eta eskualdeko ekonomia indartu nahi du proiektu honek.

### Parte hartu duten eragileak:

Legorretako Udala, Goierriko Garapen Agentzia (GOIEKI) eta arkitekto taldeak.

### Aurrekontua, finantzaketa eta baliabideak:

Proiektuak 1M€-ko aurrekontua gainditzen du. Finantzaketa iturriak (GFA eta Europa) proiektuaren proposamena landu eta honen difusiorako bakarrik balio izan dute.

### Zailtasunak:

Finantzaketa iturriak bermatzea da proiektu honen zailtasunik handiena.

**Kontaktua:** [alkatea@legorreta.eus](mailto:alkatea@legorreta.eus)



## 6.11 LANDALAB: ANGIOZAR, LEINTZ-GATZAGA ETA ZERAIN

### Deskribapena eta helburu nagusiak:

Landalab proiektua landa-eremuetan zaugarritasun egoeran dauden adineko pertsonen gizarte esku-hartze goiztiarra egiteko eredu pilotua da. Horretarako, baliabide komunitarioa eta teknologikoa baliatzen ditu. Bere xedea Gipuzkoako hiru landa-eremuko herrietan gizarte irtenbide berritzaileen aplikazio praktikoa bat egitea da. Landalab proiektuaren helburuak ondorengoak dira:

- Aspektu soziodemografikoak, ekonomikoak eta komunitarioak ezagutzeko diagnostiko bat egitea.
- Beste herrialdeetan dauden interbentzio ereduak ezagutzea eta aplikatzea.
- Testuinguru eta behar izan zehatzak dituzten leku konkretuetan gizarte zerbitzu egokituak sortzea.
- Gizarte zerbitzuen pilotajeak landa-eremuko adineko pertsonen zaintzan eta interbentzioa duen eragina aztertzea.

### Epealdia eta prozesuaren azalpena:

Proiektua 2017 eta 2018 urteen bitartean gauzatu da, eta hainbat fase desberdin izan ditu:

- 1. fasea: aurretiko lanak (metodologia adostu eta talde eragilea aktibatu).
- 2. fasea: Europako eta nazioarteko ereduak aztertu.
- 3. fasea: diagnostikoak gauzatu (GIS bidezko diagnostiko kuantitatiboa eta diagnostiko komunitarioa).
- 4. fasea: talde eragilearen prestaketa.
- 5. fasea: pilotajea (Zerainen bakarrik).
- 6. fasea: emaitzen azterketa.
- 7. Fasea: emaitzak aurkezteko jardunaldia.

### Herritarren parte-hartzea eta eragin ekonomikoa:

Adinekoen zaintza eta prebentzio komunitario honen oinarria herritarrek adineko pertsonekin egunerokoa duten hartu-emanak. Kasu guztietan herritarrek proiektuan izan duten parte-hartzea, beraz, oso handia izan da diagnostiko koalitatiboetan (20 herritar), formakuntza prozesuetan (60 herritar) eta pilotajeetan (8 herritar).

Bestalde, proiektuak adineko pertsonen zaintza sistema berriak aplikatu ditu. Modu honetan zaintza lanak balioan jartzen dira eta profesionalizatzeko bidea irekitzen dute.

### Parte hartu duten eragileak:

Zerainlab, Bergarako udala, Leintz-Gatzagako udala, Gislan Koop. Elk. Eta Agintzari Gizarte Ekimeneko Kooperatiba.

### Aurrekontua, finantzaketa eta baliabideak:

Proiektuak 40.000€ inguruko aurrekontua izan du eta GFA GipuzkoaLab programaren diru-laguntzaren bidez finantziatu da. Baliabide pertsonalei dagokionez lau langilek parte hartu dute: soziologoa, psikologoa, antropologoa eta gizarte hezitzailea. Horrez gain, katalogazioan GISa baliatu da.

### Zailtasunak:

Irtenbideak tokian tokiko baliabideekin eraiki behar dira, eta landa-eremuetan baliabide formalak eskuratzeko zailtasunak dituzte. Bestalde, auzo zaintza kultura sustatu eta definitzeko zailtasunak ere ageri dira (non amaitzen da baliabide informalen ardura eta non hasi formala, esaterako).

**Kontaktua:** [unaizabala@agintzari.com](mailto:unaizabala@agintzari.com)

## 6.12 ZEGAMA: ZEGAMA-AIZKORRI MENDI MARATOIA

### Deskribapena eta helburu nagusiak:

Zegama-Aizkorri Mendi Maratoia mundu mailako mendi lasterketa garrantzitsuenetako bat da. Zegama eta Aizkorri-Aratz natur parkea lotzen ditu probak, eta orain arte 18 aldiz antolatu dute.

Proba honen helburu nagusiak bi dira: batetik, kanpoko jendearentzat Zegama ezagun eta erakargarri egitea, eta bestetik, herritarrak probaren antolakuntzan inplikatu eta herri dinamika indartzea.

Gaur egun, Zegama-Aizkorri Mendi Maratoiak duen arrakasta udalerrian urtean zehar dinamika eta ekimen desberdinak indartzeko balio du. Izan ere, gimnasioko urteko abonua egiten dutenen artean edota San Silvestre lasterketan parte hartzen dutenen artean probarako dortsalak zozketatzen dituzte.

### Epealdia eta prozesuaren azalpena:

90. hamarkadan Zegamako Udalak eta herriko hainbat eragilek gogoeta egin zuten eta ondorengo galderak jarri zituzten mahai gainean: nola egin ezagun Zegama? Zer eskaini dezake Zegamak? Bide horretan, ekimenen bat antolatzea beharrezkoa zela ikusi zuten, eta horretarako, Aizkorri-Aratz natur parkea erraminta hoberena zela pentsatu zuten.

Horiek horrela, Amezti Mendi Elkarteko kideek mendi lasterketa bat antolatzeko proposamena luzatu zuten, eta horretarako beharrezko boluntarioak biltzeari ekin zioten.

2002 urtean antolatu zen lehen lasterketa, eta dagoeneko 18 edizio burutu dira. Gaur egun probak duen azpiegitura asko profesionalizatu da, lasterketak mundu mailan duen islaren adierazgarri.

### Herritarren parte-hartzea eta eragin ekonomikoa:

Lasterketaren antolakuntza Zegamako Udalaren ardura bada ere, ekimenaren helburu nagusia herritarrak probaren antolakuntzan inplikatzeko izan da. Gaur egun, 450 boluntariok baino gehiagok parte hartzen dute bere antolakuntzan (nagusiki herritarrak). Ekimen honek bizitza komunitarioa asko indartu du, eta lasterketa bera antolatzea herri proiektu bat bilakatu da.

Ekimenak ez du diru irabazirik ateratzeko helbururik, baina probak herrian duen eragin ekonomikoa nabaria da. Izan ere, lasterketaren aurreko astean herriko ostatua zein landetxea bete egiten dira (baita inguruko harrietakoak), eta tabernek eta dendek aktibitate handia izaten dute. Probak duen izena dela eta, urteko sasoi desberdinetan ere jendea erakartzen du. Bestalde, probaren antolakuntza modu boluntarioan egiten bada ere, hainbat lan burutzeko lau bat pertsona astebetetz enplegatu izan dira. Lanpostu horiek herriko langabetuek bete izan dituzte.

### Parte hartu duten eragileak:

Ekimen honetan parte hartu duten eragile nagusiak Zegamako Udala eta Amezti Mendi Elkartea izan dira.

### Aurrekontua, finantzaketa eta baliabideak:

Urteko aurrekontua 135.000€ ingurukoa izaten da. Zegamako Udalak bere gain hartzen du gastuaren osotasuna, beti ere EJKo eta GFako diru-laguntzak aintzat hartuta. Enpresa pribatuek ere proba ekonomikoki babesten dute, eta dortsalen ordainketa ere diru sarrera bat da.

### Zailtasunak:

Zegama-Aizkorri Mendi Maratoiak bere hasieran izan zuen zailtasun nagusia korrikalarien gabezia izan zen. Gaur egun, ordea, korrikalari kopurua mugatu behar dute. Proba aurrera ateratzeko finantzaketa lortzea ere arazo izan da. Gaur egun, lasterketak erakartzen duen jendea dela-eta herria bete egiten da, eta asteburuan zehar hainbat zerbitzu bermatu behar dira: autobusak, parkinga, garbiketa...

**Kontaktua:** [alkatea.zegama@udal.gipuzkoa.net](mailto:alkatea.zegama@udal.gipuzkoa.net)

## 6.13 ERREZILGO IBARBI SAGARRA ELKARTEA

### Deskribapena eta helburu nagusiak:

Errezilgo Sagarrak Errezil herriarentzako izan duen eta gaur egun ere duen garrantzia ikusirik, berau ezagutzera eraman eta indartzeko sortutako egitasmo bat da hau. Elkartearen helburu nagusiak eremu sozial, kultural eta ekonomikoan Errezilgo sagarraren iragana, oraina eta etorkizuna ikertzea, berreskuratzea eta garatzea da.

Izan ere, aurreko belaunaldiek eskualdeko industrian lan egiten bazuten ere baserriko aktibitatea mantentzen zuten, artean Errezilgo sagarra ekoitziz. Gaur egun, ordea, belaunaldi berriek ez dituzte baserriko lanak beraien gain hartzen, eta ondorioz, herriaren paisaia moldatzeko eta sagarraren ekoizpena eteteko arriskua dago.

Etorkizunari begira elkarrekin produktore desberdinenentzat gune komunak egokitu nahiko lituzke sagarra gordetzeko (frigorifikoak eta almazetak) eta produktuak garatzeko. Modu horretan, ekoizleek beraien lana profesionalizatzeko erraztasunak izango lituzkete.

### Epealdia eta prozesuaren azalpena:

Atala Kultur Elkarrekin Errezileko herri kultura dinamikan aritu izan da urte luzez. 2012 urtean elkartearen barruan sagarrari herrigintzarako garrantzia berezia ematea erabaki zuen, baina tamalez elkarrekin desegin egin zen.

Erronka hori, ordea, hainbat herritarrek eta sagar ekoizleek hartu zuten bere gain, eta horretarako, Ibarbi Errezigo Errezil Sagarraren Kultur Elkarrekin sortu zuten (2014). Egindako ekintzen artean azpimarragarrienak ondorengoak dira:

- Sagarraren eta ekoizpenaren egoera ezagutzeko baserriarrei egindako inkesta (2015).
- Sagarraren kultura ezagutzeko Sagarrearen ibilbidea (2018).
- Sagarrondoan landaketa berriak (2019).

### Herritarren parte-hartzea eta eragin ekonomikoa:

Errezilgo Ibarbi Sagarra Elkarrekin herritarrek eta sagar ekoizleek sortutako elkarrekin da. Proiektuak, beraz, herrigintza dinamika bati erantzuten dio, eta sagarraren bidez herriaren izena eta izana indartu nahi dira. Dinamika honi esker Errezilgo baserrien aktibitatea indartzea lortu da, eta helburua, belaunaldi berriak baserriko bizitzari eustea da.

Sagarraren ekoizpena baserriko bizitzari eusteko diru iturri garrantzitsu bat da, baina gaur egun, bertatik ez da inor bizi. Proiektua martxan jarri zenetik ekoizpenak eta sagarraren balioak gora egin dute.

Aipatu behar da herrian emakume elkarrekin bat dagoela (25 urte baino gehiago) sagarra zein bertatik elaboratutako produktuak saltzen dituen.

### Parte hartu duten eragileak:

Elkarrekin gain Errezilgo Udala eta Urkome izan dira proiektuko eragile aktibo nagusiak.

### Aurrekontua, finantzaketa eta baliabideak:

Dinamika desberdinak Kutxa Fundazioaren, GFAREN edota EJREN bidez finantziatu dira. Sagardoaren ibilbideak, esaterako, 25.000€-ko aurrekontua izan du. Baliabide pertsonalei dagokionez, elkarrekin partaideen auzolana izan da nagusi, baina diru-laguntzetarako zein sustapenerako Urkomeko langileen laguntza izan dute.

### Zailtasunak:

Ez da ezer zehaztu.

**Kontaktua:** [info@errezisagarra.eus](mailto:info@errezisagarra.eus)

## 6.14 BEIZAMAKO INGURUMEN ATERPETXEA

### Deskribapena eta helburu nagusiak:

Beizamako Ingurumen Aterpetxea landa turismo arduratsuan oinarritutako proiektu bat da. Bere konpromisoa familiei zuzenduriko aisia eta ikasleentzako hezkuntza esperientziak Beizaman eskaintzea da. Bide berean herriak elikagaiak ekoizteko duen gaitasuna ezagutaraztea bilatzen du, pertsonak jokabide zuzenago eta iraunkorrakoak bilatzera motibatuz, ingurunearekiko errespetuz jokatzuz eta komunitatearen indartzea ahalbidetuz.

Aterpetxeak eskaintzen dituen zerbitzuak eta aktibitateak ondorengoak dira:

- Ostalaritza zerbitzu integrala
- Ingurumen hezkuntza HH, LH eta DBH mailako ikasleei.
- Inguruko baserriei bertako aktibitatea ezagutzeko bisitak.
- Beizamako ondare naturala eta kulturala ezagutzeko ibilaldiak.
- Talde tailerrak: ogia, gozogintza...

### Epealdia eta prozesuaren azalpena:

Beizamako Ingurumen Aterpetxea bi pertsonen ekintzailtza sozialeko proiektu bat da. 2008ko krisi ekonomikoa, batetik, eta bizimodu estilo berri bat izateko nahiak, bestetik, Beizaman proiektu bati ekiteko ideia garatu zuten.

Horretarako, Beizama Bizia Kooperatiba Elkarre Txikia sortu zuten eta proiektuaren bideragarritasuna aztertzen hasi ziren HAZIren laguntzaz (2009).

Aterpetxearen eraikina hutsik zegoen, eta Beizamako Udalak proiektuaren berri izan zuenean eraikinaren esleipena adosteko prozesua hasi zen. Azkenik, 2012 urtean Beizamako Ingurumen Aterpetxea ireki zen.

### Herritarren parte-hartzea eta eragin ekonomikoa:

Proiektuak hasieratik herritarrekin komunikazioan egon da eta herriak bat egin du egitasmoarekin. Aterpetxea herriko kultur dinamizatzaile eragile ere izan da bertan egin diren aktibitate desberdinei esker.

Eragin ekonomikoari dagokionez, azpimarratu behar da Beizaman aktibitate gehigarri bat izateak duen garrantzia. Honek, gainera, herriko ostatuan zein inguruko produktoreengan eragina izan du.

Beizamako Ingurumen Aterpetxeak, bere aldetik, lanaldi erdiko bi lanpostu egonkor sortu ditu (bizitzako beste alorrekin kontziliatzeko), eta herriko jendearen hainbat kontratazio ere eragin ditu: ingurumen hezitzaileak, sukaldariak edota garbitzaileak.

### Parte hartu duten eragileak:

Beizama Bizia Kooperatibaz gain Beizamako Udala, Urkome, HAZI eta Iraurgi Berritzen izan dira.

### Aurrekontua, finantzaketa eta baliabideak:

Aterpetxearen eraikina existitzen zen eta hau egokitu behar izan da. Gainera, eraikinaren alokairuaren dirua eraikinaren mantentura bideratuta dago. Proiektuak, beraz, ez du inbertsio handirik behar izan; kooperatibako kideen aurrezkiekin aurrera atera da. Eskuratutako diru-laguntzak urriak izan dira kasu honetan.

### Zailtasunak:

Sektorearen hasierako ezezagutza proiektuaren eskaintza egokitzeko arazoa izan da. Bestalde, komunikazioa ere arazoa izan da proiektua erakargarri egin eta jendea bertaratzeko.

**Kontaktua:** [beizamabizia@gmail.com](mailto:beizamabizia@gmail.com)

## 6.15 EZKIOKO IGARTUBEITI BASERRI MUSEOA

### Deskribapena eta helburu nagusiak:

Igartubeiti Baserri Museoa euskal baserriaren historia, bere bilakaera eta bertan bizi zirenen bizimodua ezagutaraztea helburu duen proiektua da. Horretarako egitasmo, jarduera eta hezkuntza proiektua zabala eskaintzen die bere bisitariei.

Bere aktibitateen artean lan etnografiko desberdinak, Baserri Eguna, Sagardo Astea edota Musika Dolarean bezalako ekintzak antolatzen dituzte. Hezkuntza proiektuari dagokionez, berriz, ikasle-irakasleei (HH, LH, DBH, Batxilergoa eta Goi Maila) zein familiei zuzenduriko tailerrak eta ibilbide gidatuak eskaintzen ditu.

Igartubeiti Baserri Museoa eskualdeko turismo iraunkorra sustatzeko eta erakartzeko aktibo garrantzitsua da. Horrez gain, PATRIM+-en, mugaz gaindiko museo, ekomuseo eta interpretazio zentroen ondare sarearen partaidea da. Sarearen helburua, garapen jasangarriaren ikuspuntutik Pirinioetako bi aldeen ondare natural eta kulturala balioan jartzea da.

### Epealdia eta prozesuaren azalpena:

Igartubeiti baserria GFak erosi zuen hau desagertu ez zedin (1992). Erabat zaharberritu eta eredu izendatu zuen. Prozesu horretatik jasotako informazioa zabaltzeko interpretazio zentroa eraiki eta hornitzea erabaki zen. Bi gune horiek, baratzak eta inguruneak osatzen dute Igartubeiti Baserri Museoa.

Museoaren kudeaketa lehiaketa bidez esleitzen da, eta kudeatzailearen arabera zehazten dira ekintza desberdinak. Dena den, ondorengo mugarri hauek garrantzitsuak dira:

- Hezkuntza proiektua osatzea (2014).
- Turismo iraunkorraren inguruko eragileekin saretzea (2017).
- Ikerketa eta garapen lerroren aktibazioa (2019).

### Herritarren parte-hartzea eta eragin ekonomikoa:

Igartubeiti Baserri Museoan herritarrek ez dute modu zuzenean parte hartzen. Duela 3 urte arte herriko Yartu Elkarteak hainbat aktibitateetan murgildu zen, gazteen baina errelebo faltagatik hau eten zen. Dena den, Igartubeiti Baserri Museoak herritarrei antolatzen dituen aktibitateen berri ematen die eta herriko Kultur Batzordean parte hartzen dute.

Proiektuak gutxienez lau lanpostu sortzen ditu (urteko sasoiaren arabera horietako batzuk jardunaldi erdikoak dira). Bestalde, elkarlana zuzena izan da herriko ostatu eta jatetxeekin. Antolatzen diren aktibitateetarako bertako produktuak eta zerbitzuak baliatzea lehenesten da.

### Parte hartu duten eragileak:

Ezkio-Itsasoko, Zumarragako eta Urretxuko Udalak, Urola Garaiko Mankomunitatea, Basquetour, GFA eta EJ.

### Aurrekontua, finantzaketa eta baliabideak:

Proiektuaren urteko aurrekontua 200.000€ ingurukoa da, eta sarrera eta dendak %10 finantzatzen dute. Gainerakoa diru-laguntza desberdinen bidez erdiesten da. Baliabide material nagusiak baserria, interpretazio zentroa eta bere ingurunea dira, eta baliabide pertsonalei dagokionez, bertako langileak.

### Zailtasunak:

Ez da ezer zehaztu.

**Kontaktua:** [igartubeiti@gipuzkoa.eus](mailto:igartubeiti@gipuzkoa.eus)

## 6.16 TXINDOKIKO ITZALA

### Deskribapena eta helburu nagusiak:

Natur gune paregabea eta turismo aktiboa (zuhaitz parkeak, eskalada ikastaroak, mendi ibilaldiak, BTT ibilbideak, artzainei bisitak...) uztartzen dituen abentura parkea da Txindokiko Itzala. Hau Abaltzisketa herriko Larraitz auzoan kokatzen da.

Abentura parkeak aisia, natura, kirola eta kultura uztartzen dituen jarduerak eskaintzen dizkie ikastetxe, familia, enpresa zein lagun-taldeei. Horrez gain, bertako produktuen salmenta, informazio puntua eta gida espezializatu zerbitzuak era ditu.

Txindokiko Itzala ekimena erakunde publiko eta pribatuen elkarlanean oinarritu da, eta bere helburua inguru horren turismo potentzialtasuna sustatzea da.

### Epealdia eta prozesuaren azalpena:

Tolosaldea Garatzenek Txindokiren magalean kokatzen den eremua aukera handiko gune bezala ikusi dut betidanik. 2009 urtean bertaratzen ziren bisitarien inguruko ikerketa bat burutu zuten, eta bertan, turismoa modu aktiboan sustatzea erabaki zuten.

Garai berean, Abaltzisketako Udalak LEADER diru-laguntza bat eskuratzen du herrian proiektu bat garatzeko, eta horrela, zuhaitz parkea egitea erabakitzen du. BiziBizirik enpresak irabazi zuen lehiaketa.

2010etik aurrera urtero Tolosaldea Garatzen, Tolomendi, BiziBiziki eta Lur-Lan Baserritar Elkartearen arteko hitzarmena sinatzen da eremua turistikoki dinamizatzeko eta parkea kudeatzeko.

### Herritarren parte-hartzea eta eragin ekonomikoa:

Ekimen hau Abaltzisketako Udalaren inizatibaz hasi zen. Bertan ez da herritarren parte-hartzerik egon; herritarrek parkearen erabiltzaile bat gehiago besterik ez dira.

Txindokiko Itzalak hiru lanpostu zuzen sortzen ditu (ez dira jardunaldi osokoak sasoiaren arabera). Ekimenari esker inguruko jatetxe eta tabernek ere bisita ugari jasotzen dituzte. Proiektuaren inpaktu zuzena 70.000€ ingurukoa da, eta inpaktu induzituak, berriz, 220.000€ inguruan estimatu dira.

Bestalde, Lur-Lan Baserritar Elkartearen bidez bertako baserrietan ekoiztutako produktuak saltzen dira bertako dendan, eta horrela, nekazal-ekonomiaren garapena sustatu. Dena den, oraindik ez da lortu tokiko ekoizleekin lankidetzaren harreman finko bat.

### Parte hartu duten eragileak:

Abaltzisketako Udala, Tolosaldea Garatzen, Tolomendi, Lur-Lan Baserritar Elkartea eta BiziBiziki enpresa.

### Aurrekontua, finantzaketa eta baliabideak:

Proiektuaren sorrera Abaltzisketako Udalak eskuratutako LEADER diru-laguntza baten bidetik abiatu zen. Finantzaketa aipatutako erakunde publiko eta pribatuen arteko elkarlanaren bidez erdiesten da.

### Zailtasunak:

Ez da ezer zehaztu.

**Kontaktua:** [idurre@bizibiziki.com](mailto:idurre@bizibiziki.com)

## 6.17 EUROPAKO ESPERIENTZIAK

### **Samsø (Danimarka): burujabetza energetikoa**

1997 urtean Danimarkako gobernuak Samsø udalerria aukeratu zuen erreferentziazko proiektu batean parte hartzeko: azpiegitura energetiko konbentzionala ordezkatu eta irla iturri berriztagarrien bidez elektrizitatez hornitu. Bide horretan, hainbat haize-sorgailu (elektrizitatea exportatzeko haina) eta biomasa bidezko berokuntza sistema zentralak ezarri dituzte.

Prozesu hori gizarte zibilak eta udal taldeak bultzatu dute, eta enpresa lokalen eta komunitate osoaren babesa izan dute. Bottom-up estrategiak erabilia dibulgazio publikoa eta parte-hartzea indartu dute, herritarrak dinamikaren parte bilakatu. Komunitatearen ahalduntzea ezinbestekoa izan da erabakiak modu bateratuan hartu eta ekintzak aurrera eramateko

Trantsizio proiektu horrek, ordea, inbertsio ekonomiko handia behar izan du (57 M€). Horretarako, Samsøko udalak Europako finantzazio iturriez gain, Danimarkako gobernuaren, enpresa pribatuen eta inbertsore lokalen funtsak baliatu ditu.

### **Ludgate Hub (Irlanda):**

Ludgate Hub Cork konderriko Skibbereen herrian kokatzen den coworking espazioa da. Proiektu hau 2016 urtean jarri zen martxan, eta bere helburua teknologia oinarri duten ekintzaileak erakartzea da horren bidez inguruko aktibitate ekonomikoa bermatu eta etorkizunean enplegu berriak sortzeko. Ekimenari abiapuntua emateko bi inbertsore pribaturen laguntza izan zuten (0,5M€), baita Vodafone Irlandaren laguntza herria kalitatezko konexio digitalaz hornitzeko.

Mota desberdineko 40 enpresa nazional zein internazionalak bertan lan egiteko eskaera egin dute dagoeneko, eta proiektua Europako gainerako landa-eremuetan errepikatzeke erreferentzia bilakatu da. Etorkizun hurbilean lanpostu zuzenen eta ez-zuzenen kopurua handitu eta egonkortzea dute helburu.

### **SEMPRE project (Herrialde Baltikoak):**

SEMPRE proiektuaren helburua Baltikoko landa-eremuko gizarte zerbitzuak hobetzea da, eta horretarako, gizarte langileak erraminta berritzaileez hornitzen dituzte. Erraminta horien oinarria gizarte zerbitzuen onuradunen ahalduntzean eta parte-hartzean oinarritzen dira. Izan ere, landa-eremuko baliabideen murrizketak gizarte zerbitzuen eskaintza eta kalitatea murriztu du azken urteetan. Burutu diren ekintzetako batzuk ondorengoak dira:

- Ahalduntzeko eskualde mailako zein maila lokaleko sareen osaketa.
- Beharrak ebaluatzeko eta zerbitzuak eskaintzeko erramintak garatu eta probatu.
- Erabiltzaileari bideratutako proiektu mikroak martxan jarri.
- Praktika honen gida osatu.

Proiektu honek hiru urteko epealdia izan du (2016-2019), eta bere arduradun nagusia Diaconie of Schleswig-Holstein izan da. Aurrekontua 4,8 M€ ingurukoa izan da, eta nagusiki, Interreg Baltic Sea Region programaren bidez finantziatu da.

### **Hego Tiroleko zaintza kooperatiba (Italia):**

Learning with women farmers-grow-live kooperatiba soziala 2006 urtean sortu zen Hego Tiroleko landa-eremuan bizi ziren emakumeei enplegu aukera bat eskaintzeko helburuarekin. 2007tik aurrera kooperatiba umeen zaintza zerbitzuak eskaintzen hasi zen, eta egun, 100 emakumek baino gehiagok lan egiten dute horretan.

Zaintza zerbitzu horiek, gainera, laborantza aktibitateekin uztartzen dira. Izan eren, laborantza eta natura umeen zaintza prozesuaren parte dira. Hainbat kooperatibek laborantzari eta naturari lotutako hezkuntza zerbitzuak ere eskaintzen dizkiete eskolei.

2014tik aurrera kooperatibak adineko pertsonen zaintza lanak ere eskaintzen ditu; landa-eremuko biztanleriaren zahartzea problematika orokorra da. Gaur egun, 30 puntu baino gehiago dira zerbitzu hori martxan dutenak.

**Alston Moor Partnership (Inglatera):**

2.000 biztanle pasatxo dituen Alston Moor herria berrikuntza sozialaren erreferentziazko adibide bat da. Meatzeen beherakadaren, fundizioaren itxieraren eta zerbitzuen gabeziaren aurrean, herritarrek mobilizatu Alston Moor Partnership elkarte sortu zuten. Elkarte hau herritarren borondatezko lanean oinarritzen da, eta bertatik, herriak behar dituen aktibitate desberdinak bideratzen dira.

Gaur egun 24 enpresa sozial desberdin aktibo daude udalerrian (okindegiak, gimnasioak, laborantza zerbitzuak, elurra kentzeko makina publikoa...) eta 50 enplegutik gora sortu ditu. Enpresa bakoitzak modu autonomoan funtzionatzen badu ere, denek dute herriari mesede egiteko eta irabaziak ekonomia lokalean inbertitzeko konpromezua.

**Cloughjordan Ecovillage (Irlanda):**

Cloughjordanekeo ekoaldea 1999 urtean sortu zen. 500 biztanle baino gutxiago dituen herri honetan hainbat pertsona elkartu eta sozialki, ekologikoki eta ekonomikoki iraunkorra zen komunitate bat sortzeko apustua egin zuten.

Gaur egun 50 familia bizi dira bertako kontsumo baxuko etxebizitzetan. Gainera, energia sorkuntzarako sistema berriztagarriak, laborantzarako ortuak, enpresa gune bat, ostalua eta ekintza desberdinak egiteko espazioak dituzte.

Ekoaldeak, gainera, iraunkortasunaren inguruko hezkuntza proiektuak eskaintzen ditu maila desberdinetan, eta horretarako nazioarteko onspena du.